

Jean Pierre Arbelbide

**IGANDEA
EDO
JAUNAREN EGUNA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Igandea edo Jaunaren Eguna*, Jean Pierre
Arbelbide. Lille, 1895

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00730.htm>

IGANDEA EDO JAUNAREN EGUNA

Meza-Bezperen othoitzekin

J-P ARBELBIDE, Hazparneko misionesten
buruzagiak egina

San Augustinen Elkhartasuneko
JAUN DESCLEE eta
hekien lagunen molditztegia.
Lille, du Metz karrikan, 41. 1895.

San Josepe handia, zu bezalako nekazaleentzat mintzo naiz hemen: Emozute othoi Igandea iragan dezaten bethi Jainkoak eta Elizak erakatsi moldean, lan debekatuetarik baratuz, Meza-Bezperak entzunez eta bekhatuzko bidetarik osoki urrunduz.

Liburu xume hau onets ezazu, eta nola iguzkiak loreari bere edertasuna, berdin zuk nere lanari emozu Igandearen maitarazteko eta ongi begiraazteko indarra.

J.P. A.

BETHI ESKUARA BIZI BEDI

AITZIN SOLASAK

Jainkoak begira gure Eskuararen galtzetik. — Eskuara, mintzaia paregabea. — Eskuara, egiazko sinestearen zaintzale. — Gure frantximenten erdara, nahasia bezain bitxi. — Eskuara bastarta. — Hortaz zer dioen Neurthitzlariak. — Eskualdunak herritik ihesi, gaskoinak laster gure nagusi. — Oxala, gure herrian eta lur-lanean baginaude! — Geroaz ez othe da lotsatzeko? — Mintzaiarekin atxik othoi gure ohikuntza zahar eta onak! — Atxik guziz Igandeguna!

Zertako liburu berri hau? Lehenik eta oroz gainera Igandeari dohazkon eginbide premia-tsua xehetasunekin aipatzeko, eta bertalde gure Eskual-Herri maitearen mintzai eta ohitura onak, gure ahal ttipiaren araura, hazkartzeko.

Duela bizpahirur urthe, Agorrilako egun eder batez, Eskualdun andana handi bat Lurdera joana zen beilaz edo erromeriaz.

Han zebiltzan gure herritar maite horiek, harpetik elizara, elizatik kalbariora, bethi othoitzean eta kantuz.

Bazen, egun hartan berean, Jaun Paristar jakintsun bat Lurderat ethorria; eta Eskualdunen othoitzak eta kantuak entzutearekin, xoraturik zebilan hekien ondotik, zer othe zen mintzaia eder, sekulan aditu ez zuen hori. Hekien artean zegoen, beharriak landaturik, papera eskuan, entzun guziak izkribatuz. Ez dut uste ihiztaria erneago dagoen ihiziari, nola Jaun hura Eskualdun beilarien hitz bakhotxari; eta gogora ethorri zitzaitan ihiztariaren kobla hau:

Jaun ihiztaria goizetan ernerik
Ixil dago kaiolan kokorikaturik,
Harma behar-ondoan, begiak argirik,
Othe denez airean ihizi-lerrorik.

Orobat zegoen gure paristar jauna, ernerik hartzen eta izkribatzen zituela Eskualdunen kantu ederrak.

Huna kantu heietarik zonbait. Goizeko mezan, komuniatu aitzinean, guziek eman-ahala errepikatu zuten:

Zato arima dohatsua,
Ez ihes egin beldurrez;
Amodioz sustatua,
Jesus dago oihu minez;
Baldin gaxtoak arbuiatzen
Baditu Jainko justuak,
Sainduak ditu gomidatzen
Aita guziz amultsuak.

Eta komuniatu ondoan:

Kausitu dut xoilki maite dutana,
Kausitu dut; ez daukat ez utzirik!
Kausitu dut, neurea da baxharrik,
Kausitu dut Jesus guziz ona!

Jesus, oi zu eztimasuna bera,
Zeruko dohainen ithurburua,
Othoi gathez dezazu esteka
Zuri bethikotz ene bihotza.

Azkenik, Lurdeko Ama-Birjina zeruaren
erdian ikhusten balute bezala, eta behinere
baino khar gehiagorekin, batetan kantatzen
dute:

Oi erregina handia,
Zoin zaren miresgarria!
Ikhusten zaitut jarria
Seme maitearen aldean
Alkhirik distiantenean!

Sainduek izarren pare
Zeruan argitzen dute;
Zu distiantago zare,
Oi ama iduri-gabea,
Birjina garbien lorea.

Hoik guziak entzun, ezkiribatu eta ongi iraku-
rri ondoan, Jaun Paristarra badoha lehenbiziko
aphezaren gana eta galdegiten derauko: Zer
othe da mintzaia hau? ederra zait eta eztia, bai-
nan ez dezaket hitz bat ere konpreni!

Ni nintzen aphez hura, eta ihardetsi neraukon: Mintzaia hori da Eskuara; eta nahi banauzu sinetsi, emazu oraino kobla hau, izkribatu dituzun kantuen ondotik:

Jakintsun erranetan
Behar bada sineste,
Ederrena mintzoetan
Eskuara da, diote.
Eskualdunek bazterretan
Hortaz ohore dute.

Eman nerauzkion gero xehetasun guziak Eskualdunen gainean eta hekien mintzaia ederraren gainean; eta erran zerautan: Agian atxiki-
ren ditutzue bethi zuen mintzaia eta zuen bizi-
molde zaharrak; hetan duzue arbasoetarik
ukhan duzuen primantzarik baliosoena!

* * *

Oi herritar maiteak, gogo emazue beraz arbasoen aztura eta bizi-molde onak sekulan aldatzetik, sekulan trukatzetik jende arrotzetako ohitura

herrebes eta galgarrietarat. Eta guziz, zuen mintzaia edarra, zuen Eskuara, ah! begira zazue bethi.

Gure arbaso eta herritar guziek mintzaia hortan dute Jainko maitea bethidanik othoiztu eta goretsi. Eta guk ere Aita-Amen ganik, hekien galzarrean, altzoan eta besoetan, Eskuaraz ikhasi ditugu gure othoitzak. Eta Jainkoari bezala, berdin gure ahaide eta laguneri Eskuaraz abiatu gare mintzatzen; halako moldez non barneko gure bozkario ala bihotzminak, ez baititugu sekulan hain ongi aiphatzen eta kanporat agertzen nola haur denborako Eskuara gozo eta aberats horren bidez.

Gure Eskuara, berenaz ere, daiteken mintzaia ederrenetarik bat da. Neurthitzlariak dio:

Munduko mintzoetan ez da hain garbirik,
Eta dakienarentzat hain gai handikorik.

Huna zer zaitan niri gehienik laket Eskuaran. Elheak labur ditu, erne eta bizi. Erran nahi den hura erran, eta bethi aitzina doha. Iduri du zilhar bizia, ez du hitz bat hutsik ez alferrik. Berriz ere

dioit Eskuara garbi eta zalhu hori zaitala niri laket.

Ez dakit nork darasan Eskuarak ez dezakela deus gauza gorarik eta barnarik aipha errexki, nasaiki eta ederki. Horrelakoak irakur ditzala Aita Mendiburu, Atxular eta bertze asko; ikhusiren du Eskuara, erdara bezain ongi mintza daitekela edozoin gauza handi eta goratikakoez.

Huna zer dioen bertzalde gizon aiphatu batek: Gaskoina bera ere ez laiteke galtzerat utzi behar, bainan are gutiago Eskuara.

Gaskoina ez da mintzai nahastekatu bat beizik, bertze askorekin hitz berak, molde berak eta itzuli berak darabiltzana.

Bertzelakorik da Eskuara; ez du bertze mintzaiekin deus nahastekarik, garbia da eta osoki berezia; bere baithan daduzka bere erro, zimendu, ethorki eta ithurburu guziak; bere ganikako jitez eta indarrez asentatzen da burutik buru, nehondikako laguntza arrotzik gabe.

Hortik, mintzai nahastekatu guziek ez bezalako premia du Eskuarak. Eta nola nihori zorrik ez duen Etxeko-Jauna hazkar eta burua gorarik bai-

tago bere eremuetan, hala-hala gure mendien artean dago Eskuara.

Bere baithakoa delarik osoki, ez duelarik deus maileatzen gaineratiko hizkuntza arrotzeri, Eskuaren eremuak hain dire zabalak eta nasaiak non behexkunde hortan berean aurkhitzen baitu aberastasunik handiena. Ez du zeren hitzketa nunbait ibil; herriko bere hitzekin errexki eta ausarki aipha dezazke gizonaren buruari darabilzkon asmu eta gogoeta guziak. Eta baldin, aldi bat edo bertze, ez balitz kausitzen gure gogoetari dohakon hitz garbi xuxena, baldin entsegaturik ere ezbaletor hitz hori, —mintzatu nahi eta ezin mintza—, ah! orduan ere ez ginuke zeren lotsatu, ezen gure mintzai-Eskuarak hitz berrien egiteko antzea badu, eta maiz berri horiek ez dire ederrago beizik. Zonbat eta zonbat aldiz ez dute hori egin gure izkiribatzaile zaharrek eta guziz Atxularrek, Larramendik, Mendiburuk eta Duhaldek!

Mindegian nola haziak eta landareak, berdin Eskuaren hitz-gaiak aurkhitzen dire nasai; gai horiek elkharretara bil bitez, batzu bertzeri loth eta xerta bitez, ez nola-nahi, bainan behar den

antzearekin eta jakitatearekin, eta geroztik errextasuna badukezu zure gogoeta guziak eskuaraz aiphatzeko.

Bai, hizkuntza aberatsa da Eskuara. Eta zer erran haren itzuli trebe, zalhuez? Izan ahala ibil errexa da, nola-nahi molda daite, eta bethi ederki, gogoan ditutzun asmuak ausarki agertuz, nasaiki eta gozoki xehatuz. Hitz batetik ala bertzetik has dezazun solasa, zure elheak bethi xuxen adosturen dire, hala-nola ehaile trebearen eskuetan irazkia eta bilba elkharrekin trebeskatzten baitire, bata bertzeari lotzen, josten, eta tinki-tinkian oihal hazkar atheratzen.

Bertzalde huna zer dioen *Eskualdun* gazetak: Eskuara da ere mundu zabalean ezagutuak diren mintzaia guzien artean zaharrenetarik bat. Nehork ez daki xuxen noiz, nork, nondik ekharria den eskuara toki hautarat. Ala hemen berean sorthua othe den hastapenean. Bertze asko mintzaien ethorkia, heien erroak eta adarrak errexa dire hatzemaiteko. Hala nola frantsesa, española, anglesa noizdanikakoak diren eta zertarik eginak, erranen dautzute xuxen gizon argituek.

Bainan eskuara nondik atheratua den, nor eta zer ziren lehenbiziko Eskualdunak? Oraiko mintzaia hau bera zutenez, ala bertzelako bat gure lehen arbasoek, ez dakigu. Badakitela uste dutenak badire. Batzuek erdi trufaz bezala, bertzek espantu egiteko, erraten dute: Adam eta Eba eskuaraz mintzo zirela.

Bertze batzuek diote Babeleko dorrearen egileri mintzoa makhurtu eta nahasi arte, gizon guzien mintzaia Eskuara zela: *Omen* hortaz ez dezakegu hemen deusik erran, baizik ere hola erraten dutela zonbaitek, egia bada eta ez bada. Guk dakiguna da, aspaldi-aspaldiko mintzaia zaharra dela gutartean eskuara.

Eta nola gauza onak baitire iraunkor, ageri da behar duela ukhan eskuarak bertze asko mintzaiek ez duten zerbait, hoinbertze mendez, galdu gabe, desegin gabe, dirauenaz geroz.

Deus ez da lakhetago, jakitate aphur bat eta lan-arte duenarentzat, nola baita ikhustea Eskuara zaharra eta Erdara gaztea elkarri parean emanik, bat ala bertzea den othe hobea-go.

Orduan da ageri gure mintzaia zoin den aberatsa, bai frantsesaren aldean, bai eta bertze edozoin erdaren aldean. Ez dugu zeren ahalge izan gure mintzaiaz. Izan dire eta badire gizon jakintsunak, beren bizia holako lanetan higitu ondoan, berrogoita hamar mintzaietaraino ikhasi-ta, goraki erran izan dutenak, asko eskualdez eskuara oroen nausi dela; nausi iraupenez, ba eta erran gogo duenaren arabera hitzen moldatzeko errestasunaz, eta bereziki mintzatzeko eta izkribatzeko moldeaz.

Izkribatzeaz den bezenbatean, Eskuarak ez bezalako trabak ditu Frantsesak jende arrotzarrentzat.

Hortakotz behar dugu eskuara atxiki, begiratu galtzerat utzi gabe, eta ahal badugu oraino azkartu eta hedatu.

Dugun orok gure ahala egin gure herritarrerri hemengo mintzaia maitha-arazteko, eta arrotzerri ere ahalik hobekiena ezagut-arazteko.

Gure mintzaiak badu oraino bertze dohain eta probetxu bat.

Nola hesi hazkarra ogi-landaren edo mahastiaren inguruan, hala-hala dago gure mintzaia Eskual-herriaren eremuetan. Sineste zuzen, bizi-molde on eta gure ohitura zahar guziak zaintzen eta tieso atxikitzen ditu; baina bazterretako gezurkeria, egite makhur, aztura arrotz eta gaxtoak urruntzen ditu.

Gure Eskuarak dirudi ibaia eder eta aberats bat: ez darabila gutartean ur garbirik baizen; arimetar hedatzen ditu irakaspén eta argi frango, baina ez tzarrik, ezen, Jainkoari esker, liburu gaxtorik ez dugu gure Eskuaran, hoberenatarik dire guziak.

Berriki oraino Aphezpiku handi eta guziz aipatu Jaun Freppel orobat mintzo zen Bretaniako jendaiari.

Zer arren, ez othe dugu erdararik ikhasi behar? Bai, bai, ikhasi behar dire erdarak, eta ikhasi ahalik eta hobekienik, eta guziz gure erre-suma maite huntako mintzaia, frantsesa.

Baina oroz gainetik Eskuara dezagun ikhas, mintza, irakur, osoki ezagut. Eskuaraz gaitezin

elhesta ala etxeko jendeen artean, ala herriko adiskide eta lagunekin, bai eta herriz kanpo ere, hitz batez non-nahi, eskualdunekin garen ber. Bertzela zer gerthatuko da?

Hizkuntz erdara frangok jakinen mintzatzzen,

Eskaraz jakin gabe kasik irakurtzen.

Eta horrela gure mintzaia ederra bortxaz eta laster galduko da.

Geroztik arren ez othe gare bakhan beizik erdaraz mintzatu behar? Ez! Ezen zer gerthatzen da hamarretarik bederatzietan?

Huna nola deraukun koblariak ihardesten:

Frantses murdukatzea ez da jakitate, Ixilik egotea segur hobe lukete.

Eta bertzalde, erran dugun bezala, gure Eskuararen galtzeko liretezke erdarazko solas soberanioak.

Bai, erdarez noiz-nahi mintzatzeko errebeskeriak errekarat garamatza eta makhur horrek diraueno, gure eskuara egunetik egunera galtzerat dabilke.

Nola daite bertzela? Erdaratar horiek gure bilkhura guzietan dathozi, erdi *frantses* eta erdi *gaskoin*; hastean ez deraue nihork irri beizik egiten, delakotz heien elhea nahasia bezain bitxi; bainan hek ez dire lotsatzen! Ergelkeriari datxeko thema, eta ihesi joan behar orde, listorburrumba horiek darraizku bethi, erdara dariotela. Nik uste lotarik ere erdaraz amesten diren; eta ahalik balute, gauaz ere lethorzke berdin gure beharrietara.

Xoriek nahi dute kaiolatik ilki,
Lilieki ere noizbait jastatu iguzki!

Horrelako hainitz dagozi gutartean eta kalte frango egiten herriko mintzaiari. Eta ez erran: Zer dohaku hek erdaraz mintzaturik ere?... dathorke ni gana nor-nahi, eta darasala *frantses* ala *gaskoin*, nik bethi atxikiren dut nere eskuara.

Bai, zuk uste; ez ordean ahantz erran zaharra: *Otsoa lagun dukanean, ai! bahu hora sahetsean! Eta bertze hau: Erradak norekin bizi hizan, nik gero hiri nolako hizan.*

Beraz holakorik zu-gana balethor, ez ukho egin ez, bainan ezti-eztia erran: Ori, adiskidea, ez dakizu nik baino gehiago *frantsesik*, goazin othoi biak eskuaraz.

* * *

Ez datza hortan baxharrik gure makhurra; bertze gaitz bat badugu are gehiago hedatzen dena eta eskuarari kalte egiten. Hura da eskua-ra *bastarta*, oro erdararat itzulia, gure hitzkuntza ederraren iduripen zerbait beizik ez duena. Athor beraz, erakurtzaile maitea, harrait, eta nerekin entzun ezak neurthitzlari zaharra; huna zer derron eskuararen bihurdikatzaile moldegaitzari:

Munduko bazter orotan ohore dadukate,
Mintzaia bere modutan oso baitadukate.
Hemen aldiz guzieri zizaie desohore,
Xumei nola handiei, garbi mintzo badire.

Frantximanen aiphamenaz osoki hanpatuak,
Eskaldunaren izenaz hurren ahalkatuak,
Bere hitzkuntzaz oraino dute arnegatuko,
Zilibokhata bat gero hainitzez egiteko.

Adi zagun burigiesa, modara solasean;
Non zinen atzo, diotza, non atzo arratsean?...
Ez ninduzun aperzitu puntuaren gainean?
Han nintzen han promenatu, damurik, zereinean!

Hain ongi, nola handia, xumea ez da lotsa,
Nahi du haren mihia mintza dadin *frantsesa*,
Latina ere badaki Eskararekin lotzen;
Izan naiz, dio ederki, kaiean ambulatzen.

Huna zer den ene beldurra: erdarari sobera
trebatuz, Eskualdunek premia ttipitan har deza-
ten herriko mintzaia, eta geroztik ezaxolaki baz-
terrerat utz dezaten. Ez zaiote iduri ez askori
holakorik gertha daitekela.

Bainan orhoit zer dioen erran zaharrak:

Bide makhurrean trebatu,
Onerat ezin gibelatu.

Horra beraz bi izurrite, gure eskuara galtzen ari dutenak. Hirurgarrenbat badugu: Eskual-herritik kanpo, hirietarat edo ameriketarat joaiteko ezin egona. Eta zer gerthatzen da hortik? Bazterrak oro eskualdunez husten eta gaskoinez bethetzen! Etxetiar eta ofiziale gehienak arrotzak ditugu, nonbaitik ethorriak, osoki erdaldu-nak, eta gure mintzai ederraren orde, ez dakit zer hizkuntza ahalkegarri gutartean hedatzen ari dutenak.

Herritik kanpo dohazin Eskualdunek, huna zer darasaten, berek uste gabeen: «Goazin etxetik urrun, eta gure eskuara daramagun norapait gurekin, eta han erdara zerbaitekin trukatuko dugu; eta arte hortan, gure orde, guk herrian hutsik utzi etxeen bethetzerat eta gure lurren lantzerat eta gure ontasunen ibiltzerat, ethorriko dire gaskoin bonet handi batzu, eta *diubibanka* galaraziko dute gure arbasoen mintzaia, Eskuara!...».

Badantzut, adiskidea, eta horrela mintzatzea eder bazazu, zohazkit hirietarat eta Ameriketarat eta nahi duzun tokirat, ezen zuk ez duzu

gaurgeroz eskualdun odolik zainetan. Eta ez erran niri bertze tokietan ere eskuaraz mintzatu-ko zarela, ez erran bertze Eskual-herri bat nahi duzula itsasoz haindian asentatu; hori ez da amets bat beizik.

Zer dezaket bada? herrian egon eta goseak hil?...

Zer dezakezun? Ah! guk guziek egiten duguna: Egon herrian, bainan othoi goserik gabe, ezen nihon ez duzu hemen bezain errexki bilduren ohorezki bizitzekoa. Nere bizian herri eta eskualde hainitz ikhusi dut, eta bihirik ez gure Eskual-herria bezain ederrik eta aberatsik.

Zuk eta nik dagigun bertze herritar gehienek egiten dutena, laborantzari jarraik eta izan bethi girixtino on.

Duela sei urthe huna neronek zer nion nere lehenbiziko liburuan, *Bokazionean edo Jainkoaren deian*:

Baldin laborantzari zinez emaiten badire gure Eskualdunak, utziko dute hirietarat eta Ameriketarat joaiteko duten errabia. Eskual-herria, munduko ederrenetarik bat da, eta halere sor-tokian

ezin egon! iduri, hemen ez bezalako atseginak
eta aberastasunak badirela bethi bertze nonbait!

Zeru gaina maiz urdin, denbora maiz gozo
Hiru laurdenak leihor, bertzea itsaso,
Asko mendi aberats, zelhai gizen asko...
Non holakorik kausi urus bizitzeko!

Ai gehienek bortz nigar egiten dituzte bai
Eskual-Herria utzirik; ohartzen dire laster zer
zorokeria den eskuko xoriaren uztea airekoaren
menturan.

Nahiz ukhan ez dutena,
Galtzen dute badutena,
Eta gaur bizitzekoa ausarki bazutenak,
Aurkhitzen dire biharko kolpez errumesak.
Ar beraz tinki lanean,
Hor, etxeko laborantzan;
Zuhurki zazu goberna
Handik bildu dukezuna.
Etxea arthatzen baduzu,
Tresor handia hor duzu,
Eta doluturen ez zaitzu.

Egungo egunean oraino ez ginuke gure Eskuara erdaran trukatu nahi. Bainan zombate-naz baikare erdaran usu mintzatuko, hanbate-naz hartuko dugu harrekilako trebetasuna eta amodioa, eta geroztik deus antsiarik gabe bere gisa utziko dugu Eskuara.

Beha zakozu herritik kanpo dohan gizon horri: Itsasoa hartzen du, untziak badarama Indietarat. Bere sor-tokia agerian eta bixtan dueno, maiz gibelera behatzen du, bihotzak min egiten dio, nigarra dario begietarik, gogo guziak etxeko alderat jauzi egiten derauko.

Bainan herriko mendiak itzaliz geroz, ez due-nean gehiago lurrik ikhusten ahal, nigarrak xukhatzen dire, barnea deskantsatzen da. Eta handik harat gizon horrek Indietako alderat itzultzen du bere bihotza; gogorik ez du gehiago hantgo-tzak beizik; amets guziak dohan tokirat landatuak ditu.

Eta ni beldur naiz hola-hola gerta dakion Eskual-herriari: Bere mintzaia atxikiren dueno, behatuko da bethi bere arbasoen irakaspeneri eta hetan tieso egonen; bainan joanago eta sar-

tzenago dohala mintzaia arrotzetan, ai geroztik akhabo izanen da laster Eskual-herriaz!...

Halarik ere uste dut nik ez dela gure Eskuara sekulan galduko; eta guziz huna zerk atxikiko duen: Eskuarazko liburuek, denbora hotan ederki eta nasaiki agertzen diren liburuek. Huna zer dioen gazeta *Eskualdunak*:

«Atsegin handirekin ikhusten dugu, liburu eskuarazkoen nonbrea bethi emendatuz dohala. Eskerrak diotzategu hemen, gure Eskual-herri maitearen izenean, liburu on heien egileri. Ez detzazkegu hemen oro aipha. Bertze alde aski ezagutuak dire. *Aski* ez; behinere ez dira obra onak eta heien egileak aski ezagutuak. Bainan bederen erran dezakegu, azken urthe hautan bezenbat liburu on eta eder agertzen bada ondoko urtheetan, erran dezakegu gure mintzaia zaharra eta nihon ez bezalakoa, izanen dela oraino behin eta behin aiphatua munduan. Biba bethi Eskuara!

»Iraunen du Eskuarak, Eskual-herrian gizon deno. Eta goraki erraten ahal dugu: badira oraino gizonak, eta izanen ere ba agian gero eta gehiago, Eskual-herriaren Erlisionearekin batean

Eskuara ere gure artean begiratuko dutenak, eta ahal bada —ahal da!— oraino hobeki ezagut-araziko eta maitha-araziko dutenak.

»Behinik behin badut uste, goraxago aiphatu ditugun jaun horietarik zonbaitek segurik ez duten oraino bere azken hitza errana. Agian ez! Bainan nola ez baigira mundu huntan *oro orotako*, ez eta, are gutiago, *bethiko*, nahi gintuzke ikhusi, zaharren edo zahartzen ari direnen ondotik *gazteak*, gaztedanik lanari lotzen. Zer laiteke bada ederragorik ikhustea baino, zerbait dakiten edo ikhasteko gutizia duketen guziak, hala nola aphez gazteak, eta zertako ez aphez-gaiak ere? guziak Eskuarazko liburu zaharretan lehengo Eskuara zaharraren ongi ikhasten; eta gero, buruan zerbait onik ezarri eta bihotzean khar pixka bat phizten zaiotenean, berak ere lan berri zerbaiten egiten; handi edo ttipi, guti bada guti, bethi zerbait; ez balitz ere egiteko dituzketen predikuak ahalaz Eskuara garbiz egitea baizik! Nun nahi eta nor nahiren aitzinean, edo-zoin mintzaietan, ederki mintzo den gizona bethi atsegin gehiagorekin aditua da. Bethi badu harek, mintzo denean, bertzek ez duten *indar*

berezi bat. Orok dakiguna da hori; eta bizkitartean egia hori hobekienik jakin behar ginukenek ardura ahantzten dugu. Ez dezagun bada ahantz, baldin gure herria maite badugu, eta nahi badugu herrian herriari eman zaion bezela, eta gure ahalaren arabera, *ongi*, ongi hainitz egin.

»Aphezez mintzatu naiz eta aphez-gaiez, zeren eta heiek baitukete aizararik edo astirik gehiena, bai eta ere idekidurarik gehiena, gure herri gehienetan, Eskuararen buruz eta errotik ikhasterat eta behar-orduan bertzeri irakasterat artzeko. Bainan bertzenaz orori mintzo gare; zerbait dakiten, eta, aphezek bezala, astia edo aizina dutelarik, Eskualherriaren ethorkizunaz eta Eskuararen aiphamenaz den gutieneko axolarik duten guzieri. Zer? Munduaren bazter guzietan oraiko eta lehengo mintzaien gainean jendea bethi argitzen ari, eta guk behar ginukela utzi gure mintzaia zaharra eta ederra galtzerat! Ez, ez dugu utziko. Bertze alde, ez gare baitezpada gal dadin beldur ere. Sobera ditu erroak lurrean barna, eta adarrak lodi eta azkar, ez baditu ere oraino hanbat urrun hedatuak.

»Nor ere baitzare, adiskidea, barkha zadazut ene bizitasuna eta luzetasuna. Ez nauke, behin bethikotz, gogoan dudana erran gabe.

»Eskuara baizik ez dakienak ez du asmatzen ahal, bertze edo-zoin nahi mintzaien aldean zer esku-gaina dagokan Eskuarak. Bertze zonbait bezala hedatua balitz, ongi argi lezake munduan! Hola hola ere, zer dira Eskuarari begiratu eta, hor harat gure auzo-herrietako mintzaia eta erdara guziak?».

Ez gare beraz harritu behar, nunbaitikako jaun handi batzu heldu badira ere, noizetik noizera, bere tokietan Eskual-herriaren eta eta bereziki Eskuararen aiphamena aditurik, gure herriaren ikhustera bere begiz; eta bere beharriz aditzera bertze nihon ez delako mintzaia hura.

Eskualdun maitea, begirauk gazetaren elhe zuhur eta argituari: *Zer laiteke ederragorik ikhustea baino, zerbait dakiten edo ikhasteko gutizia duketen guziak, hala nola aphez gazteak, eta zertako ez aphez-gaiak ere? guziak Eskuarazko liburu zaharretan lehengo Eskuara zahararren ongi ikhasten?...* Eta lehia hadi arbasoen Eskuara guziz eder horren ongi ikhasterat.

Gure izkribatzaile zahar eta lehenbiziko heta-rik hunat erori da hainitz eskualdun mintzaia. Ez da beraz gazeta hori ustegabeen arranguratzan, eta bizkitartean gehienek erranen dute: Zertako ibil leheneko zaharkeria eta illunbeetan? oraiko Eskuara errexarekin badugu guk jakitaterik aski! —Badantzut, adiskidea, bainan zuk ere entzun nazazu eta dugun elkhar adi: Zaharretik har dezagun on dena, berritik utz gaizki dena, eta bietarik egin Eskuara garbi eder bat.

Eta hemen erran behar dut makhur handi batean behaztopatu direla gure izkribatzaile zaharrak: Eskuarari nola-nahika nahasi dute erdara, *frantsesa* ala *español*a.

Makhur hortarik begira gaitezen, ezen premia bezain errex da.

* * *

Bainan bertzerik eta hobeagorik behar ginuke, eta huna zer.

Bretaniako eskualdetan gaindi ibilia naiz denboran, eta nola Bretaniak mintzaia bat baitu gurea bezala zaharra eta alde guziz ederra, min-

tzai hortako gizon jakintsunenak ikhusi nahi izan ditut. Gu uzkur bezain hek erne eta lehiatuak dire. Ala aitorensemek, ala aphezek, bai eta aphezpikuek berek entsegu frango baderabilate herriko mintzaia zahar ederra xutik atxiki beharrez.

Eta geroztik ere, behin baino gehiagotan, Bretaniako asko Jaun argituekin solas egin dut gauza horren ariaz. Aurthen berean, urtharilaren seian, huna zer izkribatzen zautan Vanneko Bikario Jeneralak:

«Aspaldiko gure mintzaia, oraino ere miliun bat herritarrek gutartean mintzatzen duguna, bethi osorik atxiki nahi ginuke. Aiphatzen derautazun biltzarreaz den bezenbatean, huna zer lanari dagoen orai: Molditza edo *ortografia* bethikotz asentatu eta finkatu behar du, eta hori, haurrek eskoletan errexkiago beren mintzaia ikhas dezatentzat. Bihotz guziz igortzen derauzkitzut, Jauna, ikhusbide horiek. Eskualdunek eta Bretonek elkhar iduri dute, ezen batzu ala bertzeak osoki bihotzdunak dire eta arbasoen Erlisioneari zinez atxikiak. Nahiz hekien mintzaiak ez ditezken berdinak, halarik ere biak elkharren heine-

koak dire, direlakotz bada Europa guziko zaharrenak. Eta bertzalde Bretonek maitagune berezitan daduzkate Eskualdunak».

Gehiago dena, Vanneko Jaun Aphezpikuak eskola girixtino guzietako irakasleri, *Frera alaseroreri*, manatu deraukote haurrak beren herriko mintzaiari jarraikaraz detzazten Erdarari bezala, artha ber-berarekin. Hortik, Bretaniako hurrek eskoletan bretona ikhasten dute frantsesa bezain ongi. Oxala hortaratuak bagine gure Eskual-Herri maitean! Ai orduan ez ginuke ez geroaz lotsatzerik, gure mendietako harrokek bezenbat iraun lezake gure Eskuarak.

* * *

Dakusagun orai Eskualdunek nola daduzkaten herriko ohikuntza zaharrak.

Goraxago aiphatu izan dut nola Eskuarak zaindu behar dituen gure bizimolde zahar eta onak. Bainan zer gerthatzen da? Gure mintzaia galtzerat uzten dugu, eta nondik-nahi sartzen zaizkiguz dakit zer eta zer bitzikeria galgarri.

Non dire leheneko jauntzturak eta aphaindurak? Non dire egiazki herrikoak eta gureak ziren soineko hek?

Arruntak ziren, bainan merkeak, garbiak eta ederrak!

Laborariak nahi du
Goldea luman trukatu,
Utzirik bonet mardua
Xapelaz gorde burua.

Denbora batez xoragarri zen gure Eskualdunak ikhustea, igande egunetan, pilota partidetan, merkhatuetan, baxhotxa bere gerriko gorriarekin eta bere makhilarekin. Bainan orai ez da kasik gehiago gerrikorik ez makhilarik. Gizon gaizok athorra dute gerrian xamar petik ageri, eta bi esku hutsak luze-luzea lurrerat dilindan!

Ai non dire leheneko gizon lerdan, zalhu eta biziak? Hek zuten bihotzetik kantu hau errepikatzen:

Loria zait loria!
Aphaintzen naizenean,
Zetha zinta gorria
Ematea soinean.
Egiazki orduan
Zerbait baniz munduan!

Arrosa primaderan
Zoin den lore ederra!
Idekitzen denean
Bagohazi hartzera,
Bainan laster da histen:
Zintak bethi distiratzen!

Eta makhila? Ez da kasik ageri ere gehiago Laphurdiko eskualdetan. Atharratzeko eta Gara-ziko bazterretara joan behar zare, nahi badituzu Eskualdunak makhilarekin ikhusi. Ah! han bai gizon guziek badute makhila. Zohazi edozoin etxetara; nausiaren eta muthiko gaztearen gan-barako athe gibelari beha zakozu; horra non den makhila:

Gau guzian atzarririk,
Phartitzeko xutiturik,

Argi izkila joitean,
Etxetik atheratzean,
Urrun naizela abian,
Hartzen dut nere makhila,
Zer-nahi gertha dadila.
Airos banoha harekin,
Lagun ona dut nerekin,
Piaia dezaket egin.

Ah! zer makhila dudana,
Mizpira finik-finena,
Hesian zen xuxenena!
Han nihaurek dut hautatu,
Ozkatu, gisuz gorritu.
Beha, dir-dir du egiten!
Guziak zaizkit jelosten,
Eder, hazkarra, zeren den.

Bai, egiaz, eder da Eskualdun lerdena,
Su pindarrak begian, zalurik dohana,
Gerriko sedarekin, poneta buruan,
Ezpartinak oinetan, makila eskuan.

Pilota ere uzten ari du gazteriak; plazara joan
orde, doha dantzara eta ostatura; eta hortik,
bekhatuak desmasia frango badarabiltza gure
gizon gazte nagituen artean, ezen, dio erran
zaharrak, *lur beran zilo handi.*

Plaza bat izaiki'ta
pilotaririk ez,
Asko herritan hortaz
dagozi ahalkez:
Eskualdun aztureri
ukho hoi egitez
Eskualduna da hola
Kaskointzen nahitez.

Igande'ta bestetan
ofizioz goiti,
Pilota partida bat
behar laite bethi:
Hartan herriko seme
hoberen zenbeiti
Zor laie agertzea
jokhatuz nobleki.

Barne edo zokhotan
dagon gazteari,
Trufa egin dezagun,
zeren den hoin nagi:
Kaskoinen jostetetan
gostu badu ari,
Ez dela Eskualduna
aise du ageri.

Zuri menturaz, irakurtzaile maitea, idurituren zaitzu gauza gutiak eta aphurrak derauzkitzudala hemen aiphatzen; bainan gogo emazu huni: herriak eta jendaiak bakhan direla estropu handiz galtzen, bainan maizenik galtzen direla beren ardurako bizimoldeak erortzerat utziz.

Lehenik erortzen da mintzaia, mintzaiarekin sinestea, eta sinestearekin ohitura on guziak. Emeki-emeki, inguruetako arrotzekin nahasten eta bat egiten dire jendeak, eta azkenean ez da gehiago ageri izan denez ere toki hetan deus jendakia berezirik.

Etxe handi bat ez da ez betbetan eta kolpez erortzen. Ithaxurak abiatzen zaizko lehenik. Urthe osoak iraganen dire nihor ohartu gabe

ithaxur hetaz; oharturik ere, ez deraukote khasu handirik egiten; eta horrela, ez balioz, uzten dituzte eta sekulan ez hesten.

Bainan ur-kotera bethi eta barnago xortaka sartzen ari etxeari behara!

Hegastegiko zur-arteak usteltzen ditu, murruren asenturat idekitzen du sarbidea, morteroa bustitzen du, harriak desoltzen elkharren ganik, eta baratxe-baratxe zimenduetaraino jausten. Azkenekotz zimenduak urratzen ditu; eta gau batez, ustegabea, jendeak deskantsuki lo daudelarik, hain tieso zen etxe hazkarra lurre-rat tipustapan erortzen da!

Nolaz bada hori?

Hastetik arrimatze ttipi zerbait egin eska-sean; teilak itzuli gabez; ur xortari bere ixuria ez emanik!

Horrelaxe da gerthatzen herri eta jendakia hazkarrenentzat. Iduri kanpoz berdin ongi dohazila bethi, bainan kasurik egin gabe galtzerat uzten beren mintzaia eta leheneko bizimoldeak, eta azkenean uzkailtzen eta osoki galtzen.

Bizkitartean, irakurtzaile maitea, egia diozu, ez ditut oraino aipatu gure ohikuntza arrunte-
nak beizik, kanpoari eta gorphutzari behatzen
direnak beizik.

Premia handiagoko hainitz badire, arimen
kaltetan erortzera eta galtzera dohazinak.

Eskual-Herriak ederkienik atxiki izan duen
ohikuntza badakikezu zoin den: Igande eguna-
ren giristinoki eta osoki begiratzea, Meza-nausia
eta Bezperak ahal guzian entzunez, lan debeka-
tuetarik zin zinean begiratur, arratsetan nor
bere etxerat goizik bilduz, bai eta irakurtze ona
frango eginez.

Eta egungo egunean zer ikhusten dugu?

Igande goizetan meza ixil bat lasterka
entzun-eta, Meza-nausiaz deus axolarik;

Arratsaldetan, Bezperak erraitearekin, eliza
hutsik eta ostatuak jendez betherik.

Aitzakia bano batzuez eta egiazko beharrik
gabe, larunbatean belharrak ebakitzen Igandiaz
baliatzeko;

Etxe zokoetan emaztek asko joste, lisatze eta
bertze lan debekatu, eta ez khexu Jainkoak

ikhustez baldin jendeen begietarik gordetzen badire;

Pilota-partida handi bat edo bertze zerbait libertimendu nunbait emaiten bada, bethi kasik Igandearekin, jendea ofizioetarik eta herriz kanpo barreiatzeagatik;

Eta horrela Eskual-herrian Igandea bethi eta gehiago galtzen ari, eta hortan ere, bertze asko gauzetan bezala, gure mendea leheneko arbasoen bizimoldetarik urruntzen, eta aldiz ohitura eta egikunde *arrotzak, nunbaitekoak*, jabetzen gure bazterrez.

Gure eskualdetara balethor zerbait izurrite, jende gehienak eri laitezke, ez ordean hein berean guziak; baina nihor ez hilik ere, oro kutsutuak, orok zerbait min eta kalte.

Berdin da gutartean gertatzen. Ez du ez Eskual-herriak bere Erlisioea galdu, baina bai histerat utzi. Eta hortik gure leheneko ohikuntza giristinoak are histu dire. Eta nola jaunztura arrotz bitxi batzuek galarazten ari baiterauzkute herriko gure jaunztura ederrak, hala-hala mende hunen kutsua gure mendietan barna sarthu da, eta emeki-emeki, kasik gure ohargabeen, ttipitu

eta eta mendratu izan ditu gure bizimolde zahar
girstinoak...

Eta orai, Eskual-Herri maitea, zer dezaket
bertzerik, baizik ere bihotzetik erran:

Gauza handirik ez dut zuri eskeintzeko,
Ez eta ahalik zu ongi ospatzeko;
Onetsi behar duzu, nere Ama ona,
Liburu xume hau nik zuretzat egina.

I.— KAPITULUA

Igandea, Jainkoaren eguna

Bi Etxeko-Jaun aita Misionestez mintzo. — Igande egunaren saildustea, gauzek berek eta gure izaiteak manatzen. — Haste-hastetik Jainkoak berak hautatu eta sailduetsi du asteeko zazpigarren eguna. — Moisen legea. — Jesu-Kristoren eta Elizaren legea. — Igandea gizonarentzat ere egina.

Eskual-Herrian eta apherilaren azken egunetan, Igande goiz eder batekin, lehenbiziko Mezara zihoazin bi Etxeko-Jaun. Oilariza zen, argi-hastea; iguzkia ez zen oraino ageri; eta bidearen bazterretan loreak, belharrak, oihanak, xoriak, Jainkoaren eskuko gauza bizi horiek guziak, lotarik bezala iratzarten ari ziren, goizeko argiari irriz eta bozkarioz.

Etxeko-Jaun horietarik gehiena, hiruretanhogo urthetako gizon lerden erne bat, koplaria zen. Ikhusten zuena bai zerbait ederrik edo hungigarririk, haren burua phindarka abiatuko zen;

eta nola hegastinak beren ohanzetik, berdin neurthitzak hegaldaka airatuko ziren haren ezpainerarik.

Horra non beraz oilariza eder horrek oro xoraturik ezartzen duen gure gizona; koplak gaindizka bururat heldu zaizkio, eta nola Eskual-Herrian neurthitzlari guziak kantari baitire, abiatzen da kanta errepiketan, dioelarik:

Aspaldi mendietan
Urthu da elhurra,
Eta errepietan
Beztitu da lurra;
Orai dire bethetzen
Bazterrak loreez,
Orai dire estaltzen
Arbolak hostoez.

Hasi dire dostatzen
Bildotsak phentzetan,
Bai-ta ere agertzen
Inharak airetan.
Oi errexinoleta,
Laster ager hadi,
Goizetan hire kanta
Adiaraz bedi...

Bainan hemen kantaria ixilarazten du bere lagun gazteak eta diotso:

Adiskidea, dakusagun orai zerbait goragorik, ezen, zure neurthitzetan aipatu dituzun ikhugarri horiek altxatzen derautate bihotz guzia, eta gorphutzeko begiez ikhusten ditugun kanpo lorestatu horiek, Jainkoaren ganat hegaldarazten dute nere gogo. Primadera hoin ederki aipatzen duenak, bertzerik ere aipha dezake, behar derauzkidatzu bi hitz erran gure azken *Misione* hunek utzi derautan burujope batez. Zer mihiak dituzten Misionest horiek,... ez ahal ziren lehena-go profetak hobeki mintzo. Eta bihotzean zer gozoa datxekon heien elhe sainduari! Nigar ezti nasaiak ixuri ditut hek entzutearekin, eta oraino ere barnean dadukat bethi Jainkozko zorion berezi bat, eta zinez iduri zaut zerua nibaithan dela. Oi Jauna, deskantsu gozo horrek iraun baleza bethi!

Huna zerk nauen ni Misione hortan gehienik hunkitu. Dakizun bezala, nere auzoko etxean gizon bat bazen Igande-gabea, Meza-Bezperetako denboran kanpo lanetan trebeki ari zena.

Abere basa batek baino gehiago ez zuen Jainkoaren beldurrik, ez giristino khararik, ez eta jende molderik. Harritua nindagon, iduri zaitan Jainkoaz madarikatua zela, ez nezakeen begien bixtan ikhus. Eta horra non misione hunek osoki itzuli-katu duen; lehen sordiesa bezain, orai jarraikia da; ez du Igandearekin den gutieneko lanik huntitzen, ez-eta sekulan hutsegiten Mezarik ez Bezperarik. Eta zerk uste duzu Misionean horrela oneratu duela? Berak errana daut: Igande egunaren gaineko prediku batek. Zer mirakulua! Eta orai gizon hura, nere adiskiderik minena dut. Oxala! gogoz banazki prediku haren xehetasun guziak!...

—*Etxeko-Jaun zaharrak*: —Hori duka hire burujopea? Ah! bertzerik ez baduk, jarraik hadit, eta hitzez-hitz emanen derauzkiat Misionestaren elheak, ezen badakik ene buru zahar hunek barnean daduzkala bethi beharritik sarthuak oro, bai eta latina.

—*Etxeko-Jaun gazteak*: —Ez dut hoinbertzerik nahi; eginen derauzkitzut xoilki galde zonbait; eta zuk, Misionestaren araura, emadazkitzut ihardeste zuzen eta garbiak.

Lehenik beraz erradazut nolakoak diren Igan-de-egunaren erroak, ethorkiak, lehenbiziko has-tapenak eta ithurburuak. Misionean adituak ditut, bainan oraiko graziak nere bihotzean diraueno, atsegin berri batekin entzunen ditut bethi egia horiek.

—*Etxeko-Jaun zaharrak*: —Gizatasunaren erraietan landatua den sinestea da, gutaz gorago ezarriak direneri sortzez, ontasunez, bothe-rez, antzez, jakitatez edo zerbait balentria ede-rrez, ohore eta begirune ekharri behar zaiela. Lurra lur denetik hunat horrela egin izan da jen-daia guzietan, eta kristau legeak, hori debeka-tzetik urrun, hortaz beraz eginbide berezi bat egiten derauku. Jesus Jaunak nahi zuen Judu legeko aphezari beren herrunka goraren gatik ohore bihur zekioten, urrun ziren arren behar zirenak izatetik; eta Jaundone Paulo, Ebanjelioa-ren adiarazale indartsuak nahi zuen nori bere ikhustasun zuzena eman zakion, *honorem, hono-rem*, bai eta manatzen zuen pekoek nagusieri jauspen eta ohore bethi ekhar zekiotela: *Servi dominos suos omni honore dignos arbitrentur.*

Nor daiteke bada Jainkoa bezain gora eta nagusi denik? eta zeruko egoileek berek, ala aingeruek ala dohatsuek, ez othe dute bethi Jainkoa ahal guzian goستن eta handiesten?

Bai, Jainkoari zor derauzkogu ohore eta ospe guziak, amodio eta maithagune guziak, delakotz nagusien Nagusia eta handitasun guzien jabe soberanoa; delakotz oraino gure egilea eta krea-tzailea, guree eroslea eta salbatzailea; eta azkenik behar delakotz egun batez izan gure sarista-tzailea zeruko zorion bethiereko eta izarigabea. Jainkoaren alderako jauspen hori, maitagune hori, gure izaiteak berak manatzen derauku, eta hortarik zehartzea, gure eginbide hertsienetik baztertzea laiteke eta zuzentasun guzien haustea. Baitezpadako urratsa, gure gizatasunari berari datxeikona da hori.

Eta noiz uste duzu ospe eta maitagune horiek Jainkoari hobekienik eskein dezazkegula? Igande egunarekin.

Urrunago ere banoha eta diot, Iganderik ez balitz, Jainkoak ere laster ez lukeela gutartean den gutieneko ikhustasunik, ezen, dio hemen Kardinale aipatu batek, Igandea gal, Erlisione

guzia ere gal! Herri bati khenozu Igandea, eta geroztik ez dukezu han arimagabeko abere multzo lurtiar bat beizik.

Iguzkia bezain agerizko egia da beraz: Igande egunaren girixtinoki atxikitzea, dela eginbide bat gure gizatasunari berari, gure izaiteari hurbildanik datxeikona. Eta erran dut nolaz: Gure eginbide baitaezpadakoenak ezin bethe ginetzazkeelakotz igande eguna gabe.

* * *

Bertzalde, munduaren haste-hastetik Jainkoak berak asteko zazpigarren eguna hautatu izan du othoitezko eta pausuzko egun berezi batenzat. Huna ezen Testament zaharrak zer dioen: Jainkoak zazpigarren eguneko osatu zuen bere eskuko lana, *Kreazionea*, eta pausu hartu zuen bere eginkari guzietarik, eta zazpigarren egun hura benedikatu zuen eta sailndutu.

Hortik ageri da Jainkoak asteko zazpigarren eguna bertze egunetarik berezi eta hautatu izan duela, ala bere hitzaz ala bere egintzaz; eta gure lehen burrasoeri, Adami eta Evari, bai eta hekien

ondokoeri, eman zeraukotela othoitezko eta pausuzko denboratzat.

Eta beraz, galdatzen baderautazu noiz danik abiatua den Jainkoari baxharrik zazpigarren egunaren emaiteko eginbidea, ihardetsiko derauzut gure lur hunen sortzetik beretik abiatu dela. Eta oraino, galdatzen baderautazu nork duen lehenik atxiki eta bere egintzaz santifikatu egun berezi hori, ihardetsiko derauzut: Jainkoak berak, egun hartan pausatuz, lanetik osoki baratuz zeru-lurrak egin-eta.

—*Etxeko-Jaun gazteak*: —Ederki, nere adiskidea; Ikhusten dut nolakoak diren Igande-egunaren erroak, ethorkiak, lehenbiziko hastapenak eta ithurburuak. Bainan oraiarte ez zaizkit Testament zaharraren araura beizik mintzatu. Ez othe du hemen lege berriak deusik aldatuko? Zerbait erradazut Jesu-Kristok Igandeari ekharri duzken aldamenenez.

—*Etxeko-Jaun zaharrak*: —Beraz huna non dathorrela Jesu-Kristo, mende guzietako Asmakariak urrundik agindu zutena. Zer xedez othe zerauku ethortzen? Zeruko bidea gizonari idek dakiontzat. Eta nola bere guzi-ahaltasunean bai-

zekarkeien lege bat osoki berria, lege berri hori Ebanjelioan eman derauku.

Ehun eta hogoi eta hamahirurean (133), Judu bati huna zer erraten zeraukon Elizako Aitetarik lehenak, San Justinek: Zuen liburuetarik ere banakien ethorriko zela lege bat berria eta bet-hierekoa, baliaturen zena mende eta bazter orotako jende guzientzat. Juduek lege bat zinuten hertsia eta zueri bakharrik zagoena; orai aldiz Jesu-Kristok eman derauku lege bat, lurraren laur izkinetarik gizonak nasaiki Elizaren arthalderat bilduren dituen.

Horiek hola, zer eginen othe dute Jesu-Kristok eta Eliza Sainduak? Lege berri bat munduari ematearekin, khenduko othe dute Jaunaren eguna? Khentzetik urrun ez dute hazkartuko beizik. Xoilki zazpigarren eguna larunbatetik Iganderat aldaratuko dute. Eta nolaz hori? zer arrazoinez? Igandearekin hasi zuelakotz Kreatzaileak zeru-lurren egintza; Igandearekin phiztu zelakotz Jesus bere hobitik; Igandearekin behar zelakotz Izpiritu-Saindua Apostoluen gainerat jautsi.

Eta geroztik hunat, Igande egunaren sainduesteko eginbide hori, mendez mende bethi

errepikatu eta finkatu izan dute ala Aita-Sainduek ala Kontzilioek ala Enperadore, Errege eta gobernamentu suerte guziek, salbu *framazonek*.

Igandeaz bertzalde, Apostoluek eta Elizak bertze zonbait Bestaegun hautatu izan dituzte, igande-egunak bezala begiratu behar direnak. Eta nondik dator hori? zer ariaz eta zer xedez? Jesu-Kristoren, Ama-Birjinaren eta Sainduen Misterioak, Egintza ederrak, berthute bereziak ospatzeko eta gure onetan baliarazteko.

Besta premiazkoenak laur dire Frantzian: Eguberri, Jaundone Salvatore, Andredena Maria Aboztukoa eta Omia-Saindu.

Eta igandeak ala bestak nola behar dire begiratu? Meza entzunez eta lan debekaturik behar gabe ez eginez.

—*Etxeko-Jaun gazteak*: —Bertze zerbait jakin nahi nuke. Orai arte Igande-egunaren ethorkiaz eta hastapenaz mintzatu zaizkit, eta gero erran derautazu Jesu-Kristok eta Eliza-Sainduak Igandearentzat zer egin duten. Bainan guk ere, gizonek, ez othe dugu egin hor gure lan suertea? Igandetan ez bide gare Jainkoarentzat bakharrik Mezaratibiltzen eta lanetik gelditzen; guhaurek

ere badukegu hortan gure probetxua. Eta baldin Jainkoak astean egun bat beretzat atxiki badu, ez ahal du xoilki bere buruari behatu; gizonen beharorduari ere behatu duke.

—*Etxeko-Jaun zaharrak*: —Bai, bai, Jainkoak hortan gure beharorduari behatu izan du, eta baldin Jaunaren eguna bada Igandea, erran dezakegu gizonaren eguna ere dela.

Huntarik ikhusiren duzu.

Israeldarrerri erraiten zeraukoten Moisek: Orhoit zaitetze Jainkoak zonbat hersturetarik atheratu zaituzteten, eta aldiz maitagunezko zonbat emaitza aberatsez gainditurik ezarri zaituzteten. Eskerrak bihurtzeagatik, ai haren eguna, *Zabatoa*, ahalik eta arthoski begiratzazue.

Horra beraz Jainkoak nola manatzen deraukun haren Eguna arthoski begiratzea, eta zeren gatik? ah! hari eskerrak bihurtzeagatik, hari zor zaion ospea emaitzeagatik.

Bainan orai huna gizonaren alde: Jaunaren eguna egiazki eta bihotzez atxikitzen baduzu, Jainkoak ordainez zu lurreko goratasun guziak baino ere gorago altxaturen zaitu, eta patriarka

Jakoberen primantzak emanen derauzkitzu; — erran nahi baita horrelako gizon jarraikiari, ala mundu huntan bere grazia, ala zeruan bere loria, emanen derauzkola: *Tunc delectaveris super Domino, et sustollam te super altitudines terrae, et cibabo te hereditate Jacob patris tui. (Isa. 58, 14.)*

Ororen buruan, Jainkoak gure beharrik ez du, den gutienik; eta gu aldiz haren beharretan gare, gauza guzietan eta bethi; eta horra non laguntzarik aberatsenak hitzemaiten derauzkigun, haren Eguna sainduesten dugun ber; eta beraz errepika dezagun, Jainkoari bezala gizonari ere Igandea baliatzen zeraukola, eta dela gure eguna nola baita harena.

Orhoit bertzalde jadanik erran dudana: Igandea gal, Erlisione guzia ere gal! Herri bati khenozu Igandea, eta geroztik ez dukezu han arimaga-beko abere multzo lurtiar bat beizik.

Igandek laguntzen gaitu, ez xoilki arimarentzat eta zerukotzat, baina halaber lur huntako bizimolde on, zuzen eta bakezkoarentzat. Iganderik ez balitz, ez ginduke laster gutarteko elkartasun egiazkorik. Eta aldiz igandek, bere Meza, Bezpera, prediku, eta gainerateko othoitz edo

bilkhurekin, gizonari zaphatzen derauzko bere baithako jaidura makhur eta bihurriak; gehiago dena, gogo zuzenez bethetzen du, eztitasuna maitarazten derauko, berari bezala bertzeeri ongia gutiziatzerat ekhartzen du; eta horra nola jendaia giristinoak diren bethi bertzeak ez beza-lako eta hainitzez hobeak.

Hortik erran behar dugu, Jainkoak, astearen egun bat beretzat hautatzearekin, gizonari ere behatu izan duela, eta baldin egun hautatu hura bere loria eta ospearentzat begiratzen badu, hala-hala gizonaren beharorduentzat ere balia-razten duela. Hitz batez, bere ospearentzat bezala Jainkoak gizonaren onetan egin du lgan-dea.

* * *

Solas horietan bide egin zuten gure bi Etxeko-Jaunek, eta elhetik elhera, den gutienik ohar-tu gabe, elizaraino heldu izan ziren.

Ordukotz ihesi juana zen oilariza, emeki-emeki iguzkia nausitu zen, eta nola errege bat distiradura handirekin jartzen baita bere alkhi aberatsaren gainean, hala eta ederkiago aitzina-tu zen eta zeruko eremu zabalaz jabetu. Inguru-

ko mendi-gainek sua zarioten; aldapetan behe-
ra, araneko larre, oihan, landa, sorho eta bazter
guzietaraino dirdiraka jausten ari zen goizeko
argi gozo hori.

Eta horra non eliza dorretik ezkila saindua
kantuz abiatzen den, *Anjelus* joiten duela. Gure
bidelantak ixiltzen eta gelditzen dire; boneta
eskuan hartzen dute eta Gabriel aingeruarekin
Ama-Birjinari hirur *Agur Mariak* erraiten.

—*Etxeko-Jaun zaharrak*: —Orai, nere adiski-
dea, badiaguk gutarteko predikurik aski, dugun
adi gure Jaun Erretor onarena, ezen Meza hasi-
ren duk laster; elizan sar gaiten.

Sartzen dire beraz elizan eta Meza entzuten
khartsuki.

O Jaunaren amodio
Bethi maitatzekoa,
Graziasko misterio
Bethi gorestekoa!
Gizonek zure galtzeko
Hartu zuten xedea,
Gizonekin bizitzeko
Zuk asmatu moldea!

Dohain guzien dohaina
Kristaumentzat munduan:
Zeruan gora dagona
Gurekin desterruan!
Gizona Jainkoztatzeko,
Jautsirik aldarean!
Zer ginuke bilhatzeko?
Zerua da lurrean!

II.— KAPITULUA

Lanik ez egin

*Jainkoak Moisi erran hitzak. — Igandeko lana Jainkoak borthizki gaztigitzen du lege zahar-
rean. — Elizak bezala Gobernamentuek ere debekatzen dute Igandeko lana. — Gure gorp-
hutzeko eta arimako jiteak eta beharorduek ez dute nahi lanik Igandearekin, ez eta aberek. — Jainkoak nola laguntzen dituen Igandearen begiraileak, eta aldiz gaztigitzen hausleak.*

Erran dugun bezala, Igandek ala Bestak begiratu behar dire: 1. lan debekaturik ez egi-
nez, 2. Meza entzunez.

Lehenik beraz ez da lan debekaturik egin behar.

Testament zaharrari garraizkola, huna zer irakurtzen dugun Moise baithan; Jainkoa bera da mintzo gizonari: «Sei egunez ariko haiz lanean, eta eginen dituk hire lan guziak. Bainan zazpigarren egunean duk Jainko Jaunaren larunbata: egun hartan ez duk lanik eginen, ez hik, ez hire

semeak, ez hire alabak, ez hire muthilak, ez hire neskatoak, ez hire abereak, ez eta hire etxean den arrotzak, — Ezen sei egunez egin ditu Jaunak zerua eta lurra eta itsasoa eta hekietan diren gauza guziak, eta pausatu zen zazpigarren egunean: horren gatik Jaunak benedikatu eta sainduetsi du larunbata».

Jainkoaren hitzak dire horiek, osoki garbiak, legea dena-den eta bere larderia guziarekin agertzen dutenak.

Hitz horietarik baino ere hobeki gerthakari huntarik ikhusiren dugu lege guzietarik premia-tsuen hori zela Jainkoaren begietan. Izraeldarrek gizon bat larunbatarekin egurketa zabilala hatzeman zuten eta Moisi eraman. Hunek, zer egin ez jakinez, preso ezarri zuen. Bainan Jainkoak larderiatu zuen: ez hola utz gizon hori; Jaunaren egun handia hautsi du; harrika zazue eta hil.

Eta bertze zonbat horrelako gaztigu, bai eta maiz borthitzaagoak, hala-nola Babyioniako gati-botasuna, Jainkoak bere populu guziari jasanarazi zeraukona, eta zertako? Jaunaren eguna populu horrek sordieski hausten zuelakotz.

Eta lege berrian, Jesu-Kristok berak ekharri eta irakasi deraukun legean, erran diteke Elizak noiz-nahi errepikatu izan duela eginbide hertsia hori. Kasik kontzilio bakhar bat ez da, Eliza Katolikoaren hastapenetik hurat, Igandetako lana hazkarki debekatzen ez duenik.

Elizak bezala, Gobernamentuek ere debekatu izan dute Igandetako lana. Gure erresuma ederrak, Frantziak, debeku saildu horiek larderiarekin atxiki izan ditu azken urthe hotaraino; diot *azken urthe hotaraino*, ezen buruzagitzat ditugun oraiko minixtro eta deputatuek gure lege zahar giristinoak errotik khendu dituzte, eta guziz jazarri dire Igandeari.

Eta aldiz bertze jendaietan, hala-nola Angletterren, Alemanian, Ameriketean, hazkarrago beizik ez dire egungo egunean, Igandeari lanik ez egiteko lege salbagarriak.

Hitz batez, bethidanik eta bazter guzietan, *Igandea*, izan da Jainkoarentzat berezia, hautatua, kontsekratua; eta nola hori? ardurako lan nekagarrietarik osoki baratuz.

Urrunago ere banoha. Ez xoilki Liburu-Sainduek, ez xoilki Eliza katolikoak, ez xoilki jendai

guzietako Gobernamentuek debekatu izan dute
lgandetako lana, bainan gure izaiteak berak,
gure gorputzeko zainek, gure arimako endel-
guak, gure bihotzeko jiteak, hitz batez gu-baitha-
ko ekharritasun eta beharordu minenek nahi
dute lgandearekin sosegua, pausua, deskantsua.
Sosegu eta deskantsu hori gabe, jendeak ez
dezake iraun. Ez eta aberek; ezen, irautekotz,
aberek ere baitezpada behar dute astean behin
pausatu. Eta zer diot, aberek, gizonak bezenbat,
lgandeko pausuaren beharra badutela? ez xoilki
gizonak bezenbat, bainan hainitzez gehiago,
ezen guk arimaren nahikunde hazkarraz errebe-
rri detzazkegu gorputz akhituaren indar ero-
riak; bainan arima gabeko aberek ez dute horre-
lako altxa-biderik. Hekientzat, gorputza eror,
oro eror.

Ez da beraz espantitzeko baldin Jainkoak
borthizki gaztigatzen baditu lgandeko pausuaren
hausle sordiesak, eta aldiz ausarki laguntzen,
gerizatzen eta saristatzen, lanetik lgandearekin
urruntzen direnak.

Gerthakari eder huntarik ageriko da.

Maiz gure eskualdetan merkatarri batzuek ikhusten ditugu beren ontasun guzia bizkarrean darabilatenak eta bethi herriz-herri dabilzanak. (Colporteurs).

Horrelako hirur merkatarri, elkharrekin aste guzia saltzen erabiliak, ostatura biltzen dire larunbat astiri batez. Iguzkia sartzera zohan eta hirurek bazuten nork zer erran egun hetako beren saltze eta irabaziez; baina solasbiderik handiena zuten zer egin behar othe zuketene biharamunean, igandearrekin: ostatu hartan egon, meza bezperak entzuteko gisan eta pausuan, lanik ibili gabe? ala joan aitzina kurri, bertze egunetan bezala, etxez-etxe, saltzerat? lanean, irabazian, Jainko legeaz kasurik egin gabe?

Batek zion ez zela handik higituko, nahiago zuela igande eguna giristinoki iragan ezenez irabazi poxi bat egin.

Bertzeak aldiz igandearren atxikitzeaz guti khexu, baitezpada nahi ziren bertze herri bateta-

rat heldu ilhuna gabe, biharamunean goizik sal-
tzen abiatzeko gisan.

Erran bezala egiten dute: bat, giristino ona, ostatu hartan gelditzen da igandeko eguna othoitzean eta lanik gabe iragan dezantzat; eta bertzeak, diru gose tzar bati zarraizkola, auzo herrirat dohazi, igande guzia lanari jokhatzeko-
tan.

Ostatuko nagusiak khara gaxtoa zuen. Elhe zuri frango erranagatik, haren begiek, haren kopetak, haren ezpain zimurrek, haren khara eta itxura guziek, bazuten halako basa molde bort-
hitz bat.

Zer nahi izanik, gure merkatari Jainkotiarrek ostaler horri eman zerauzkaion bere puskak, gau hartan gakhoturik atxik lizantzat, ezen baliosak ziren puska hek, gehienak urrhe eta zilharrezko joiak.

Eta gero, afari zerbait jan-eta, bere gelarat igaiten da, bainan ez arrangurarik gabe. Barne-
tik bethi zerbaitek erraiten zeraukon: etxe hau etxe tzarra duk!

Ganbaran ere iduri zitzaion gauza guziak ber-
tzeetan ez bezalakoak zirela.

Zertako arrangura horiek?

Berak ere ez zakien. Huna beraz nolakoa zen gela hori: lehia bakhar bat burdin barrez hetsia; inguru guzian paretak adarailuz, salbu hegal bat taulaz egina; athe zokoan khutxa handi bat; eta gainean hegastegia, ernaiak ageri, berinazko tranpa edo idekidura bat teilen artean. Horra nolakoa zen gela hori.

Oherat joan aitzinean bere arratseko othoitza egin zuen khartsuki merkatari onak, eta gero bere arrosarioa, eta bat erran ondoan, oraino bertze bat. Othoitzean ari delarik, arrabots bat entzuten du. Zer othe diteke tenore hortan? Gauerdik joiten ari du eta illun beltza da, ez da den-gutieneko ilhargirik!... Eta harek bethi zer-bait entzuten, zurubi bat etxeari kontra emaiten balute bezala, eta gero urrats batzu zurubiaren mailetan. Ah! geroztik izitzen da, argia hiltzen du, eta ohepean gordetzen da. Han deneko, urrats berak teilatu gainean, eta laster norbaitek berinazko tranpa idekitzen du, gelarat jauzi egingen, ohean sartzen eta berehala lo zurrungan hasten.

Nor othe da?... Merkataria harriturik dago. Bainan horra non berriz ere urrhats batzu aditzen dituen, ez gehiago kanpotik, ez-eta urrundik; han ber-berean dire, etxearen barnean, ganbaratik hurbil; eta bethi aitzinatuz heldu dire. Esku batek paretako bi taula eztiki deslotzen eta khentzen ditu.

Merkatariak ez dezake hatsik har izialduraz. Eta xuxen ordukotz gauaren ilhunpeak arhindu ziren, eta teilatuko berinatik argi gutibat emaiten zuen ilhargiak.

Merkatariak beraz ikhusten ditu bi gizon itsumandoka ganbaran sartzen eta zango punttetan ixilik oherat hurbiltzen. Batek oihal bat daduka eskuan eta bertzeak ganibet handi bat.

Oi Jesus eta Maria, othoi urrikal zakizkitet, dio bere bihotzean merkatariak. Oi Jainko ona zure legea ez nahiz hautsi aurkhitzen naiz hemen; othoi salba nezazu.

Nonbaitik ethorri lo egilea bethi ohean zagozen, zurrungan ari. Gizon hek hurbiltzen zaizko. Lehenbizikoak oihalaz estaltzen eta estekatzen derauko buru guzia, oihurik egin ez dezantzat.

Eta bertzeak berehala bulharretan barna sartzen derauko bere ganibet ikharagarria.

Merkatariak oro entzuten zituen; eta ikhusi balitu bezala, xehetasun lazgarri horiek guziak begien bixtan zarabiltzaizkon.

Bi hiltzailek athe gibealeko khutxa baztertzen dute, tronadurako hirur taula altxatzen, eta zilo hari behera gorphutz hila norapait aurthikitzen. Gero, taula berekin ziloa hesten dute, khutxa berriz bere tokirat emaiten, eta ganibeta eskuan duenak bertzeari erraiten du: bihar garbituko ditiagu odol zortak, goazin orai merkatari horren urrhe-zilarren hartzera.

Eta hitz hortan badoazi biak, paretako bi taulak elkharri ongi lothurik.

Urrundu direnean, merkataria ohepetik athe-ratzen da, kadera baten gainera igaiten, teilatu-ko tranpa berinezkoa idekitzen, hilak murruari hurbildu zuen zurubiari behera jausten, eta gero lasterka etxe madarikatu hartarik ihes egiten.

Bide puska bat egin duenean, emaiten da belhauniko eta Jainkoari eskerrak bihurtzen derauzko khartsuki.

Bainan bertze eginbide bat bazuen baitezpada bethe beharra: Justiziari erraitea zer izigarrikeriak ikhusi zituen etxe hartan.

Hiribat baitzen handik hurbil, Prokuradorea ikhusten du, gau hartako xehetasunak emaiten derauzko. Jaun horrek bere karrusan hartzen du merkataria, eta argiko etxe hartarat helduak ziren jandarme tropa batekin.

Ez bide ziren guti harritu gizon-hiltzaileak ikhustearekin merkataria, beren ustez ganibeta-rekin xahutu zuten hura, horrelako gorthearekin berriz hekien gana jiten. Ihesari eman nahi dire, bainan nondik eskapa? jandarmek inguraturik dadukate etxe guzia!... Erran zaharra: *Jainkoa luzakor, ez ahanzkor.*

Elkharren anaiak ziren bi hiltzaile horiek, ifer-nutik elkhi egiazko debruak. Hartu zituzten jandarmek eta burdin-khadena batez zango besoetarik finki estekatu.

Gau hartan huna zer gerthatu zen. Anaia horietarik gehienak, ostatuko nagusiak, seme bat bazuen bera bezain tzarra. Eta seme horrek ikhusi zituenean hirur merkataria hetarik biga ostatutik urruntzen larunbat arratsean, izilka

jarraiki zeraukoten, bide zokho batean makhila ukhaldika lurrerat aurthiki zituen, hekien urrhezilharreriak ebatsi, nonbait gorde, eta gero, bere jokoia eginik, etxerat itzuli.

Eta ez nahiz tenore hartan nihori bere burua salhatu, zurubia eman zuen murruari kontra, teilatura igan, handik gelan sarthu, eta ustez nihor etzela han etzatekorik, ohera gan eta lo zurrungan jarri. Horrela zuen aitak hil bere semea, eta osebak bere iloba.

Bi anaia izigarriak gillotinatuak izan ziren.

Eta merkatari Jainkotiarrak are hobeki ikhusi zuen zer premia den Igande egunaren ongi begiratzea.

(Comte de Ciskey, *Dimanche catholique*)

* * *

Bi lan mota badire, batzu arimaren aldetik datozenak, eta bertzeak gorphutzaren aldetik.

Arimatik datozi *Irakurtzea, ezkribatzea, kantatzea*, eta horrelako bertze hainitz; eta nork ez du ikhusten izpiritutik dathorrela hor lanik gehiena? Hortakotz igandetan ez dire horiek berenaz

bekhatu. Diot *berenaz*, ezen Elizak horietarik zorbait, debekatzin ditu, hala-nola *Tribunalera deitzea*, *Sententziaren emaitza*.

Gorphutzaren aldetik datozi *lur iraultzea*, *haitzurtzea* eta bertze hainitz horrelako. Gorphutzaren nekea dute lan horiek gehienik eskatzen, eta hortakotz debekatzin ditu hirugarren manamenduak.

Ez dut hemen gainerako xehetasunik aipatu nahi, eta zertako hori? nihor gutik ongi endelgatzin dituelakotz horrelako xehetasunak, gauza berean maiz batak ikhusten baitu gorri eta bertzeak xuri. Zer egin beraz? Jaun erretorari edo aita kofesorari mintza beharorduan eta haren erranari jarraik. Geroztik ez du nihork bere Igandea hautsiko.

Bainan orhoit oraino ez dela edozoin estakuru aski lanari Igandearekin lotzeko. Ez! Sainduak izan dire, egiazko martirak, zer-nahi pairatu dutenak ez nahiz lanik egin Igandearekin. Huna haur gazte batek zer borthizkeriak jasan dituen Igandeko pausu sakratuarentzat, Igandeko lege saindu horren gatik.

Pariseko hirian zen, urtharrilaren gau hotz batez. Hiri handiaren karriketako argiek bazter guzietarik distiratzten zuten, hala-nola izarrek eta ilhargiak zeru-gainetik. Eta jende aberatsa, neguko soinekoez beroki jauntzirik, harat-hunat trumilka zebilan, eguerdi bethean baino ere ausarkiago, iduri egunak ez duela epherik aski gure atsegin edo egikhundeentzat.

Bainan karriketan ez bezalako ilhunbeak eta bihotzminak eta nigarrak ari ziren etxe gora eta handi baten selhauruan. Han zauden dotzenabat haur gazte, hamabi edo hamahirur urthetako muttiko batzu, Igandeko egun hura guzia xemi-nei garbitzen iraganik beltz-beltza eginak, akhi-tuak, goseak, beren Aita-Ama maiteetarik nora-pait desherrituak, gehienak nigarrez ari.

Lasto eta belhar nahasketa, selhauruaren inguruan hedaturik, horra haur gaixo hekien jartokia eta ohea.

Gizon adinetako borthitz bat heldu zaiote eta bakhotxari ogi puska bat afaritzat emaiten. Gizon hura haur gaixo hekien nagusia zen.

Batetik bertzera dohalarik, haur guziek, ogi puska hartzearekin, emaiten deraukote egun

hartzan irabazi diru poxia. Bainan batek ez zuen deusik, eta orduan nagusiak: Ah! hori duka berriz ere, igandetan lanik ez egin nahi!...

Hitz horietan besotik hartzen du haurra, lurrerat aurthikitzen, eta han pasoka eta ostikoka itsuski joiten. Azkenean, joiteaz hatsanturik gelditzen da gizon bihotzgabea eta sakreka urruntzen, dioela: Ikhusiko diagu, ikhusiko, ez dukanez lanik eginen igandearekin!

Haur gaixoa ez daiteke altxa lurretik, minaren minez. Oro uspeldua da, oro zehatua. Laguntzen dute bertze hurrek, eta xutitu deneko lotzen da othoitzari, belhauniko emanik, bi eskuak juntaturik, begiak nigarra dariotela zerurat altxaturik: «Oi nere Jainko guziz ona, berriz ere hitzemaiten derauzut ez dutala nik sekulan lan debekaturik eginen igande egunarekin. Nere herritik urrundu naizenean, Jaun Erretorak eta nere Ama maiteak besarkatu naute eta erran: Aste guzian gogo onez lanean ar hadi, bainan Igandea bethi Jainkoartentzat atxik!... Eta horrela eginen dut bizi naizeno. Jo nezatela, hil nezatela, bainan bethi astea lanari, igandea Jainkoari!...».

Zen bezala uspeldua izanagatik, haur hori lanean hazkarki aritu zen aste guzia. Igandea ethorri zenean, bertze lagunekin etxetik athera zen, bainan hek lanera, hura aldiz elizara. Oi zer othoitzak eta zer nigarrak igande hartan! Jesusi eta Mariari galdatu zeraukoten bere nahigabe guziera ihardokitzeko indarra. Eta horrela, othoitzean eta nigarretan laster iragan zen igandea; bai laster eta lasterregi, ezen osoki lotsatua zen haur gaixoa gauari buruz, beharrietan zituen oraino bere nagusi borthitzaren dixiduak, ez zakien zer gaitz othe zuen igurikitzeke, menturaz zerbait heriotze ikharagarri!...

Oi haur maitea, bai min handiak jasan behar-ko dituzu, bainan zu bezalako aingeru garbiak.

Jainkoaren baithan ahal duke bethi fidantza
Hersturetan altxaturen dioela bihotza,
Eta etsaien menera ez duela utziren,
Aitzitik heien ahalaz duela burlaraziren.

Ikharan itzultzen da beraz etxerat. Selhauran sarthu deneko kausitzen du bere nagusia, bethi bezala afariko ogi-pusken emaiten ari.

Gure haur Jainkotiarri ere bere zathia eskeitzen derauko, bainan erranez: Emak hunat egungo hire irabazia. Eta harek ikharan: Jauna, igandea zen egun eta ez dut lanik egin.

Ah! ez duk lanik egin nahi igandearekin, eginen duk beraz bertzerik... Eta nagusi bihotzgabeak haur gaixoa buruko iletarik hartzen du, herrestan ostikoka ibiltzen, eta gero, bethi iletarik herrestatuz, eskalaretan behera eramaiten. Mailez-mail gorphutz guzia kaskaka uspeltzen zaio martir berri huni. Etxe zolaraino herrestatu duenean, nagusi bihotzgabeak karrikarat aurthikitzen du; eta gaua han iragan dezala, athea barnetik hesten derauko.

Lehen mendetako asko martirek ez bide dute hunek bezenbat pairatu, ez eta beren oinazeak ederkiago jasan.

Bere nagusiak karrikarat aurthiki zuenean, ezagutzarik gabe zen, osoki trenpexartua. Bainan hotza baitzen gaua eta haize bizi bat ari, laster ernatu zen. Eta orduan, ikhustearekin non zen horrelako tenorean, ah! izitu zen eta othoitzean hasi: «Oi nere Jesus ona, zuretzat dut pai-

ratzen, othoi ez nazazula ahantz herstura huntu!».

Ordu berean Jaun zahar bat han gaindi iragaiten da, haurren hasperenak entzuten ditu, hurbiltzen zerauko eta xehetasunak galdatzen.

Jaun hori hunkitua da osoki Martir gaztearen bihotz handiaz. Eta nola sopra minberatua baitzen haur gaixoa, ez baitzaiteken ibil, karrosa batean ezarri zuen eta etxerat eramane berekin.

Bere andreari dio, etxeratu bezain laster: «Aberastasun frango badugu eta haurrik ez, huna non Jainkoak igortzen deraukun berak hautatu primu bat».

Ahalik eta ongi arthatzen dute haurra Jaun-Audre aberats horiek; sendotu denean, handizki eskolatzen dute, eta nola jiterik hoberena baitzuen, beren egiazko umea bezala maitatzen dute eta beren primu egiten.

Azkenean apheztu nahi izan zen haur hori, eta huna zertako; Igande egunaz, haren santifikatzeko premia handiaz hobeki mintzatzekotzat populu giristinoari.

(Comte de Ciskey, *Dimanche catholique*)

III.— KAPITULUA

Meza entzun

Zertako behar dugu Meza Igande guzietz entzun? — 1. Jainkoari emaiteko zor derauko-gun ospe guzia. — 2. Guretzat ere osoki probe-txos delakotz. — 3. Kalbarioko sakrifizioaren orhoitzapenetan. — 4. Gure bihotzminen estitzeko. — 5. Igandetan bederen komuniatzeko errextasuna guziek izan dezaguntzat. — 6. Gure etxetako griña eta hersturak errexkiago jasaitteagatik.

Eskual-Herrian sakramenduak erietarat eraman behar direnean, maiz Etxeko-Jaunak dathozi berak aphezaren bilha eta laguntzera.

Horrela egin du berriki Garaztar laborari on batek.

Bazko denbora zen eta ordukotz elizatik oihu egina eriak aste hartan ikusiren zituela Jaun-Erretorak.

Sakramenduen bilha ethorri zen beraz Etxeko-Jaun hori, eta norentzat uste duzu? ...bere

sehi zahar batentzat, aspaldian ezindua, bainan Nagusiak maite zuena bere haurride bat bezain osoki.

Jaun-Erretorak Meza erran-eta, berehala abiatu ziren sakramenduekin. Eta aphez kharitsuak eriari artharik eztiadak eta elherik sarkorrenak eman zerauzkon.

Laborari etxe horren aitzinean haritz handi bat bada, oihanetako ederrenak baino are ederraagoa; laur edo bortz mende baditu, eta etxeaitzin hortarik bazter hetako zuhaitz guziak ikhusi ditu sortzen, zahartzen, bai eta asko eihaturik erortzen.

Gosari ttiki bat hartu-eta, Erretorak erran zeraukon Etxeko Jaunari: Goazin othoi zuen haritz eder horren itzalpera, han eginen dugu solas, ez hargatik luzaz, ezen larunbata dugu eta nik biharkotzat asko gauza aitzinetik begiestatu behar ditut.

Badohazi beraz eta biak haritzaren ondoan jarririk solasean abiatzen.

Etxeko Jaunak:

Nere haritz maitea, bortz aldiz haurrean,
Igandetan mezik etxera sartzean,
Bai, bortz aldiz jarri nauk amaren aldean,
Hire adar handiek egin itzalean...

Diot *haurrean*, ezen geroztik ere gure haritz ederrak ni eta nere etxekoak maiz bere itzalpean ikhusi gaitu, bainan dakizun bezala, ama gazterik galdu nuen, eta bethi hastapeneko urte goxo hetaz orhoitzen naiz errexkienik.

Larunbata dugunaz geroztik, Jaun Erretora, bihar ere beharko naiz ni, egun bezala, elizarat ethorri!... Zergatik bada atxikiak gare Igande guziez Mezaren entzutera, eta hori bekhatu mortalaren azpian?

Jaun Erretorak: —Eliza katoliko gure Ama sainduak hala nahi duelakotz:

Meza saindua entzun ezazu
Besta Igandetan debotki.

Bainan manu hori Elizak zertako ekharri izan du? Huna zertako: Mezako sakrifizioa delakotz

Erlisionean Jainkoari ospe gehienik emaiten deraukona, eta gizonari probetxurik handiena.

Kontsekratu geroz, Jesu-Kristo den guzia dago ala Ostia sainduan ala Kalizan, bere gorp-hutz, odol, arima eta Jainkotasunarekin; eta hori guzia, bere neurrigabeko merezimenduekin, eskeintzen derauko bere Aita-Jainkoari Meza guzietan. Nork erran lezake horien balioa?

Zeruko aingeru eta saindu guziek elkharrekin Jainkoaren handitasunari emaiten derauzkoten ospe, esker-on eta goresteak, ai! osoki ederresgarriak eta aberatsak dire; bainan hekien merezimendu guziak bethi neurridunak, bethi kreatura huts batzuenak. Eta aldiz aldareko Ostia eta Kalizan dagoen Jesu-Kristo, Zeru-lurren-Jaun eta Errege soberanoa da; Jainko eta gizon da; Aita eternalaren seme egiazko eta bakharra da; bere Aitarekin eta Izpiritu-Sainduarekin Jainkotasun ber-bera daduka; eta haren merezimenduek neurririk ez dute, berak bakharririk eman dezake Jainkoaren handitasunari dagokion ohorea, Jainkoaren ontasunari dagokion esker-ona, Jainkoaren asarreari dagokion eztigailua; Jainkoaren eta gure arteko bakeak egin dezazke; harek bakha-

rrik ongi bizitzeko eta zerurat heltzeko behar ditugun grazia eta laguntzak eman zerauzkiagu. Eta horra gure aldaretan zer den egun oroz gertatzen. Hortik asma daite zer den Meza saindua eta zonbat den Jainkoarentzat ospagarri eta atsegingarri, eta berdin guretzat probetxos, aberats eta nasai.

Bai, diot berriz ere, horra zertako Eliza Ama Sainduak nahi duen Meza entzun dezagun Igan-detan: Mezako sakrifizioa delakotz Jainkoari eman daiteken osperik handiena, eta giristinoari probetxu gehienik dakarkiona.

Etxeko Jaunak: —Ederki, Jauna. Eta orai bertze xehetasun bat, bertze argialde bat. Zer da aiphatzen duzun Mezako sakrifizio hori? Erranen derautzu nik hori aspaldian jakin behar nukeela, eta kasik ahalke naiz horrelako galderik egiteaz, bainan guk, gaizo nekazalek, ah! zinezko jakitate guti dugu; igande guzietz meza, asko predikuekin entzunagatik, gu bethi jakingabeak gare, guk behienere gauzak axaletik baizen ez ditugu ikhusten, erdizka eta lanbroan.

Jaun Erretorak: —Ez lotsa, adiskidea; eskualdun nekazaleak ez du zeren bere burua gutietsi.

Ez bide dute burgies hainitzek Erlisionean harek bezenbat ere jakitate, eta baldin egia bada gure arbasoen errana: *Itsu baino okher hobe*, asko arrotzek ez bezalako argiak baditu.

Huna beraz Mezako sakrifizioa zer den: Jesu-Kristoren gorphutz eta odolaren sakrifizioa, Aphezak Jesu-kristo beraren eta Eliza guziaren izenean Jainkoari egiten deraukona, ogiaren eta arnoaren itxuran. Eta ohart huni: Mezako sakrifizioa ez da alegiazko itxura zerbait, baina da sakrifizio *egiazkoa, zinezkoa*, berekin daduzkalkotz hortakotzat behar diren dohain guziak. Eta zer othe dire egiazko sakrifizioari dohazkon dohainak? Laur dire: — 1. *Ageri den ofrenda baten eskeintzea*, eta horrelakoa da Mezan, ez lehenago bezala bildots, aharri eta idi batzu, baina Jesus, Jainko-gizona, ikhusten duguna bere estalkietan, ogiaren eta arnoaren itxuretan; — 2. *hortakotz esku eta indar duenak eskeint dezan*, eta Mezan horrela da egiten, ezen hortarako berezi aphezak beizik ezin eskeini dezake, Jesus beraren ordain bezala; — 3. *Jainkoari baxharrik eskeintzea*, eta Mezak ez du bertze xederik, Jainkoa nahi du gauza guziet gorago handietsi; — 4.

eskeinia den gauzaren desegitea edo bederen leheneko moldetik bertze batetarat aldatzea, eta hori Mezan gerthatzen da bethi, lehenik ogia eta arnoa bilhakatzen direlakotz Jesusen gorphutz eta odol Aphezak erraitearekin kontsekrazioeko hitzak, eta bigarrenekorik Aphezak komuniatu-eta Sakramenduko itxurak laster desegiten direlakotz.

Etxeko Jaunak: —Oi nik maite ditudala xehe-tasun horiek! Othoi, Jauna, aitzina zohazkit. Bainen lehenik arrangura bat khenazut burutik, eta huna zer: Maiz entzun dut kalbarioko eta Aldareko sakrifizioak bat-bera beizik ez direla, eta hori ez dut orainokoan zure elhetarik ongi ikhusten.

Jaun Erretorak: —Dakusagun beraz. Munduaren hastapenetik izatu dire sakrifizioak, ezen bethidanik baitezpada beharrak ziren, alde bategatik gure bekhatuek asarretu Jainkoaren ematzeko, eta bertze aldetik haren izaite soberanoari ospe eta esker bihurtzeko.

Lege zaharrean Jainkoak berak ezarri zituen Aphezak eta eginarazi sakrifizioak, bainen nola lege hura baitzen eskasa, haren sakrifizioak ere berdin eskasak ziren; eta ordutik, ez Aaronen

apheztasuna ez-eta haren bitimak ez ziren gai gizonaren bekhatuak borrarzeko eta Jainkoari zor den ospearen emateko.

Behar zen agertu bertze Aphez bat bertze Sakrifizio batekin; eta ethorri zauku, eta hura da Jesu-Kristo, bere burua bitimatzat Aita-Jainkoari eskeintzen deraukona. Horra zertako lur huntarat jaustearekin hunela zaion mintzo bere Aitari: Ez duzu nahi izan lege zaharreko bitimarik, baina ni gorphutz batez jauntzi nauzu, eta huna non heldu naizen zure nahikundearen bethetzerara.

Hortik, ortzirale sainduz, kalbarioko mendia-
ren gainean eta kurutze bati itzaturik Jesu-Kristok bere odola, bere bizia, bere izaite guzia eman du, osoki sakrifikatu izan du Bitima bezala Jainkoarentzat eta guretzat: *Cum adhuc peccatores essemus, Christus pro nobis mortuus est. (Ad Roma. 5,6)*. Eta geroztik kurutzeko sakrifizio hori bera mendez mende Jesu-Kristok erreberitzen du gure aldaretan. Halako moldez non Mezako sakrifizioa ez baita xoilki kalbarioko heriotzearen gogorapen eta begitarapen bat, Salbatzailearen hitz haukien arabera: *Hoc facite in meam com-*

memorationem, hau bera nere orhoitzapenetan egizue; bainan oraino baita zinez eta egiazki Jesu-kristok kurutzean egin zuen sakrifizio hura bera. Horrela dio Trenteko kontzilioak; fedezko artikulua da.

Aita Grazien, karmesetako buruzagi hainitz aipatu batek, zerutikako ageraldi bat izan zuen Santa Theresa hil-eta laster. Sainda hori ikhusi zuen, argiz eta edergailuz oro jauntzirik. Botz ezti eta khar gozo batekin erran zeraukon aita Grazienei: Guk zeruan, zuek lurrean, Jainko bera amodio berarekin behar dugu maitatu, ezen aldarean kalbarioko Jesus bera duzue, nola guk zeruan.

Ageraldi hori gerthatu zen hamabortz ehun eta lauretan hogoi eta bian (1582).

Eskeintzeko moldean beizik ez da Mezako Sakrifizioa kurutzeko sakrifiziotik bertzelakoa; eta hori, zeren kurutzearen ganean odolezkoa izan baitzen, zelakotz orduan Jesu-Kristo pairakor eta hilkor; orai aldiz gure aldaretan egiten dena, odol-ixuri gabea baita... etc.

Etxeko Jaunak: —Oh! beraz, ez balitz ere eginbide guzietarik hertsiena, zer lehiarekin, zer

bihotzeko suarekin, eta begietako zer nigarrekin ez ginuke Igandetako Mezan aurkhitu behar, Kalbarioko sakrifizio bera denaz geroz! Doloresko gure Ama Andredena-Mariarekin, Jaundone Joanni apostoluarekin, Maria-Madalena bekhatoros urrikituarekin, ortzirale sainduz han ziren bertze arima kartsu guziekin, guk ere, bederen Igandetan Jesu-Kristo gure Salbatzailea ingura, maita, ohora eta othoitz dezagun Mezako Sakrifizioan!...

Eta hastapenean erran baiterautazu Mezaren entzuterat atxikiak garela, sakrifizio hori delakotz Jainkoari eman daiteken osperik handiena, eta girstinoari probetxu gehienik dakarkiona, — ez othe gare oraino eginbide horri berari baitezpada jarraiki behar Kalbarioko sakrifizioaren orhoitzapenetan? Ezpalitz ere Jainko-gizonaren heriotzeaz eta gure Erospenaz orhoitzea beizik, ez othe laiteke gizontzat eginbiderik hertsiena Igandetako Mezaren entzute hori?

Jaun Erretorak: —Bai, bai, eta hortan datza Igandetako Mezara jarraikitzeko hertsakunde minenatarik bat. Hala-nola kurutzearen gainean Jesu-Kristoren odola haren gorphutzetik izan bai-

tzen *berezia*, berdin Mezan ere *bereziki* kontsekratzen da odola eta *bereziki* gorputza. Eta *berexte* horri darontzala, Kalbarioko orhoitzape-na gure aldaretako sakrifizioari datxeiko bethi, elkarri jarraikitzen eta lotzen dire. Eta nola baitezpadako eginbidea baita gizonentzat Erospe-neko egikunde handiaz ahalik eta maiz orhoitzea, hortik Mezarat Igandetan bederen jarraikitzeke eginbide hertsia.

Ez espanti beraz Igandeko Mezaren arbuia-tzaileri Jainkoak gaztigu borthitzak igortzen badi-tu.

Igande batez ihizira joan ziren bi muthiko gazte; bat ala bertzea lazoak, ezaxolak, osoki barreiatuak. Halarik ere batek bere meza nolaz-pait goiz hartan entzuna zuen.

Ihizin harat-hunat dabiltzalarik, horra non goibeltzen den zerua, eta laster ortzantza karraskan abiatzen. Ihurtzuria zartaka ihiztarie-tarat erortzen da, mezarik entzun gabeko doha-kabe hura erretzen du.

Eta bertzea harriturik ihesi, nonbait gorde nahiz...

Botz batek hedoiatarik oihu egiten du ihurtzuriari: Jo zak! jo zak!... Bainan bertze botz batek ihardesten du: Ez dezaket jo, ezen goiz huntan meza entzun du. (*S. Antoninus*).

Huna bertze gerthakari bat. Italian bada gubio deritzon herri gothor bat, Urbineko hiritik hurbil. Larunbat goiz batez herri hortarik hirur merkhatari joan ziren Zizternoko feriara; hirurak gizon erneak, beren eginbidetan osoki ohartuak eta handizki heltzen zirenak.

Zizternoko ferietan darabilate egun hura guzia, eta beren sal-erosteak eginik gaua ostatuan iragaiten dute.

Biharamunean, igande goizarekin, zer egingen dute? nola behar dire etxerat itzuli? meza entzunik ala entzun gabe?

Batak hau eta bertzeak hura, thirabiran dagozi askariteko denbora guzian. Azkenekotz batek derrote bertze bieri: Egizue biek nahi duzuen, bainan nik bidean abiatu baino lehen nahi dut Meza entzun.

Bata beraz doha Mezaren entzutera, bertzeak aldiz, bide luzearen egiteko eta etxerat

goizik heltzeko estakuruan, Mezarik gabe lotzen dire bideari.

Eta orai, orhoit hemen gure arbasoen bi erran-zahar hotaz:

Ago Jainkoarekin,
Jainkoa duk hirekin.

Horra lehena, huna bigarrena:

Jainkoa luzakor, ez ahanzkor.

Merkhatari horietarik bat mezaren entzuten elizan zegoelarik, bertze biak bidez bide etxeko aldera mezarik gabe zebiltzan.

Biderditan bezalatsu, ibaia bat bada eta xuxen egun hetan uria jauts-ahala ari, urak gaindituak dire, osoki borthiztuak, eta harramantza handirekin joiten eta khordokatzen dute bazter hetako zubi baxharra. Gure bidelantak ez dire izitzen, zubian aitzina dohazi. Erditsutara direneko, horra non ur olde borthitzak errotik eramaiten duen zubia!

Meza gabeko bidelant dohakabeak bethikotz galtzen dire.

Eta aldiz hirugarrena, bere Meza entzunik eta ur handiak untzi batean iraganik, etxerat bakean heltzen.

Etxeko-Jaunak: —Bai, Eliza sailduaren irakaspenetik bezala, gaztigu horietarik ere ageri da zer bekhatu handia den Iganetan Meza gure faltaz ez entzutea.

Ori, Jaun Erretora, hanbat gaxto Meza Igan-dearekin hutsegiten duenarentzat; nitaz den bezenbatean, ez balitz ere nere bihotzminen gozagarritzat beizik, deusetan truk ez nuke Mezarik gabe egon nahi.

Nahi duenak nahi duena erranen du, bainan nik dakidana hau da: Gure bizia lur huntan nigarrrezko ibaia khirets bat dela, eta gizon dohakabeak bere hersturetan ez dukeela nihon halako laguntza eztirik nola Aldareen oinetan, Mezako sakrifizioan.

Jaun Erretorak: —Hanbatenaz egia diozu, Etxeko-Jauna, non mezan aurkhitzen direnak oro partalier baitire Aphezarekin aldareko Sakrifizio hortan.

Hala-nola Aphezak, meza erratean, eskeintzen baitu sakrifizioa, bai beretzat bai bertze fededunentzat, halaber elizan aurkhitzen direnek berdin eskein dezakete harekin batean, nahiz beretzat, nahiz bertze zaizkotenentzat eta behar-ordu guzientzat. Eta nola herri batek mandatariz Errege bati dohain bat egortzen deraukonean, herriko guziek parte baitute eskeintze hartan, nahiz hotarik bakhar bat ere ez zaion mintzo; molde berean, Mezako Sakrifizioan ere, nahiz Apheza den bakharrik mintzo dena, han diren guziak ez dire gutiago partalier.

Eta orduan orhoit bereziki Jainkoaren ontasunari zor deraukogun esker-onaz.

Hori da Aphezak bereziki derrana Ofertorioko hitz hautaz: Ene anaiak, othoitz egizue ene eta zuen Sakrifizioa gogorako izan dadin Jainko Aita guziz botheretsuaren aitzinean.

Hortan garenaz geroztik behar derauzut bada gerthakari eder bat aiphatu, Mezaren entzutetik zer probetxu dukegun irakasiren derauzuna.

Etxeko Jaunak: —Biba zu, Jauna; osoki maite ditut zure ixtorio ederrak.

Jaun Erretorak: —Adi zazu beraz. Santa Elisabeth, Portugaleko erreginak, bi aitoren seme bazituen bere menez. Hetarik bat osoki ona zen eta Jainkotiarra, bertzea aldiz ahal bezalako jende minkhor gaizgarri bat.

Ikhusteko da zoinen baitan zeduzkan Erreginak bere bihotza, bere adiskidantza, bere sineste: Aitoron seme on eta Jainkotiar haren baitan.

Hortik bertzearen bekhaizkeria. Barne guzia eritua du, osoki goibeldua, mendekiozko su beltzean jarria; nolazpeit, zuzenetik edo makhurretik, baitezpada, bere laguna galduko du, hilen edo hilaraziko du.

Badoha beraz Erregearen gana eta derro: Jauna, zuk hainbertze maite duzun Erreginak, zure esposak, guphidesten zaitu, osoki arbuia-tzen, gaizki bizi da aitoren seme nere lagunarekin.

Ni nola, bertzeak hala, Errege hits haren berehala sinesten du bere idurikoa duela Erregina, eta den gutieneko duda-mudarik gabe gazti-gurik ikharagarriena gogoratzen zaio. Gisulabe erretzaile bat deitzen du eta erraiten derauko:

Aitorenseme bat igorriko deraiat galdetzera: — *Erregearen nahia egin othe duzu?* eta orduan berehala harturen duk eta gisulabearen surat aurthikiko, ezen hari bizirik erretzea zor ziakok.

Aiphatu egunean Erregeak igortzen du aitorenseme dohakabea. Bainan nola, obendun izaitetik urrun, Jainkotiarra baitzen osoki aitorensemea, eliza baten aitzinean iragaitearekin sartzen da eta meza entzuten. Meza hori erran deneko bertze bat hasten da eta hura ere entzuten du.

Arte hortan ez dauke Erregea zer gerthatu den jakin beharrez eta aitorenseme gezurtia gisulabe erretzailearen ganat igortzen du. Hunek egiten du laster eta galdatzen gizon hari: *Erregearen nahia egin othe duzu?* Hitz horietan, gisulabe erretzaileak kolpez hartzen du eta suaren erdirat aurthikitzen.

Handik denbora puska baten buruan, ethortzen da aitorenseme Jainkotiarra, bere bi Mezak entzunik. Galde bera egiten du harek ere: *Erregearen nahia egin othe duzu?* Bai, ihardesten du gisulabe erretzaileak, errakozu Jaun Erregeari guziak harek nahi bezala egin ditudala.

Gortherat itzultzen da aitoren seme ona bere ihardesmenarekin.

Harritzen da Erregea. Xehetasunak jakitearekin, ikhusten du hor Jainkoaren mirakulu handi bat, Mezako debozionearen bidez egina. Bere espos sailduari barkhamendu eskatzen derauko eta geroztik ez du harentzat amodiorik baizen.

Etxeko Jaunak: —Bai, sekulan izan bada mirakuilurik, hori hala da, eta itsu ez denak ikhusingen du hor Meza-aren entzuteko urratsak zer ondorio handiak dituzken bethi. Halarik ere izanen dire sinestegabeak edo lazoak, Meza Igandearekin hutseginen dutenak, bertzeri ere bai galaraziko: *Itsuak, bertzeak ere itsu nahi*. Bainan horrelakoak alde guziz nigaregingarri dire eta jende basak baino ere sordiesago.

Dugun orai bertzerik aipha, eta huna zer: Jende multzo bat ikhusten dut Mahain Saindura hurbiltzen Igande gutiz-gehienetan; ez bide zaio-te iduri Mezarik hekientzat badela non ez duten komuniatzen. Holakorik ez zen gure denboran, Jauna, eta zure aitzineko Erretor zaharrek ausartzia batentzat zedukaten Igandeko Meza- n zortzik komuniatze hori... eta orai?...

Jaun Erretora: —Badantzut, adiskidea, eta zuk aithortu gabe ikhusten dut zure barneko mina zer den. Amodioz baino gehiago larderiaz nahi zinituzke arimak Jainkoari buruz ibilkatu. Eta ondikotz! sobra denboraz horrela egin dute gure arbasoek.

Bainan lehenik dakusagun egia handi bat: Igandearen eginbidea, harek duela hobekienik bethetzen nork ere egun hartan komuniatzen baitu. Nolaz bada hori? Huna: Oroz gainetik eta lehenbizikorik zertako da Igandea? Jainkoari emaitagatik zor deraukogun ospea, amodioa, adorazionea; eta eginbide hori bethetzen dugu Meza entzunez eta Meza hartan eskeiniz Jesusen gorphutzaren eta odolaren sakrifizioa, sakrifizio guzietarik baliosena. Bainan zu, giristino on eta Khartsua, urrunago nahi zare joan, Jainkoari zure Jesus maitea eskeini eta eman nahi deraukozu, ez xoilki aldarean Aphezaren arartekotasunaz, bainan zeronek eta zuhauren bihotzean; eta hortakotz komuniatzen duzu. Eta zer gerthatzen da? Jainkoari zeronek Jesusekin osperik eta adorazio-nerik aberatsena emaiten deraukozu. Ez daiteke deus hoberik Igande egunaren sainduesteko.

Azken bi mendetan, hamazazpigarrenean eta hemetzortzigarrenean, *Jansenistak*, behinere agertu diren heretikorik kaltegarrienak, hasi ziren komunietik urruntzen. Eta erran zaharrak dioena, *zuzen-gabeak orro handi*, zer nahi prediku, liburu, bilkura, bai eta komentu berriak egin zituzten makhurkeria horren hedatzeko, hainbertzetaraino non hekien izurriak laster bazterrak oro kutsatu baitzituen.

Bertzalde mende hunen aitzineko izkribatzaille gaxtoek, eta hekien ondotik Frantziaren nahasmendu edo erreboluzione handiak, are gehiago jendeak hoztu zituzten, komunietik baztertu eta jesusen ganik urrundu.

Azkenik badakizu eliza guziak hetsi zituztela. Nihon gehiago aldarerik ez tabernaklerik. Orduan ikhusi zen mende galduenek sekulan ikhusi ez dutena: Jainko-Gizona, Jesu-Kristo, bere aphez errebelatuen eskuez norapait eramana, eta gauza ebatsi baten pare, nonbait gordea, mendietan, harroka ziloetan.

Eta geroztik nolaz iraun zezaken komuniatzeko jarraikitasunak? Alde batetik Jansenisten irakaste gezurtiak, bertze aldetik erresuma osoki

nahasia eta elizak oro hetsiak, ai ilhunbezko orena zen hura, ifernuak asmatu orena, giristinoak Jesu-Kristoren ganik urruntzeko.

Halarik ere egia gezurrari nausitu azkenean!

Emeki-emeki Jesusen Bihotz-Sakratuak berriz ere gizonen bihotzak bildu ditu, eta horra jadanik zombait urthe giristinoak nonbre handitan komuniatzerat maiz jarraikitzen direla.

Eta ez othoi uste izan jarraikitasun hori orai-ko Aphezek asmatua dela. Ez; bethidanik, haste-hastetik, Eliza sailduak nahi zuen Mezaren entzule guziek komunionea egin zezaten. Horrelako ohitura zen Apostoluen denboran.

Sakrifizioari berenaz datxeikon eginbidea da Mezaren entzulek aldi oroz komunia dezaten. Eta hori zertako? Komunioneak Sakrifizioa osotzen eta bethetzen baitu. Hortakotz lege zaharrean Bitimen haragitik jateko, ez xoilki baime-na, bainan manua eta eginbide hertsia.

Nere adiskidea, ez espanti beraz Igandeko Mezan ikhusten badituzu giristinoak Mahain Saindura zortzitik hurbiltzen.

Etxeko Jaunak: —Hitz derauzut, Jaun Erretora, ni ere gaurgero Igande guziez mahain saildu-

ra jarraikiren naizela. Eta nik bezala Eskual-Herriko gizon guziek, gaztek ala zaharrek, errexiki eginen ahal lukete, ezen Igande goiza laborariak dukeien arterik lañoena da kofesatzeko eta komuniatzeko.

Erradazut, Jauna, ez othe laiteke bada eder Igande guzietz gizon andana bat mahain sailduetan ikhustea? *Gizonez* mintzo naiz, ezen goraxago erran baderazut jende multzo bat ikhusten dudala Igandetan mahain saildura hurbiltzen, emaztekiak dire gutiz-gehienak.

Jaun Erretorak: —Adiskidea, zeronek uste baino hobeki mintzo zare. Bai, eder baino ere probetxosagoa laiteke gizonak eta guziz muthil gazteak Igandearekin mahain saildura zortzitik hurbiltzen balire. Ez dezakete gazte gehienek ongian iraun non ez diren Sakramenduetara maiz hurbiltzen.

Hortakotz muthil gazteen elkhartasunak, haurridetasunak, kongregazioneak, asentatzen eta biltzen ari dituzte beren elizetan asko Jaun Erretor khartsuek, Eskual-Herrian baino ere gehiago bertze hainitz herrietan, eta guziz Bretanian eta Lyoneko eskualdetan.

San Frantses salesekoak huna zer dioen:

«Errana da Mithridate, Ponteko erregeak, asmatu erremedio bat pozoinaren kontrako, eta hartarik maiz hartuz, tenperamendu bat hain sendoa eta borthitza egin zitzaiola, non gero ondoan, Erromaren eskuetara ez erortzea gatik, eta gathibo ez izan nahiz, bere burua pozoatze-
ra entseiatu ere, ezin egundaino pozoinak hilarazi baitzuen. Horra gure Salbatzaileak, aldarreko Sakramendu sainduan bere gorputza eta odola errealki jateko eta edateko guri ematean, presentatzen darokun erremedioaren itzal eta figura suerte bat. Nork ere maiz hartzen baitu bazka saindu eta erremedio salbagarri hori debozionerekin, eta hainak hartarainokoa borthitzen du bere arimako osasuna eta bizia, non inposible bezala baita izan dadin posoatua afekzio gaxtoen pozoinaz; ezen bizitzeko haragi hortaz haztea eta bekhatuaren heriotzez hiltzea, ezin baltsa ditezken gauzak dire. Eta egiaz lurreko parabizuan gizonak iraun ahal bazezaken, gorputzeko bizia galdu gabe, Jainkoak han ezarri zuen bizitzearen arbolako fruitutik janenueno; mirestek othe da gizonen, bizitzeko

sakramendu horren berhutez, orai irautea izpiri-
tuzko heriotzean erori gabe? Baldinetariak frui-
turik samurrenak eta ustelkorrenak, nola baitire
gereziak, abrikotak eta arregak, kontserbatzen
badire errexki urthe batez, azukrean edo ez-tian
konfitatzen direnean; ez da miresteko gure biho-
tzak, diren bezalako flakorik ere, iraun dezaten
bekhatuaren ustelduraz khutsatuak izan gabe,
Jainko-Semearen haragi eta odol ezin-ustelduz-
koaz azukreztatzen direnean».

San Frantses Salesekoa horrela da mintzo.

Eta orai, jakiteaz noiz behar duen bakhotxak
komuniatu, ala egun guzietan, ala zortzitik, ala
ilhabetetik, ala bertze edozoin ephetik, hori Jaun
Aphezen eskuetan ezarria du Eliza katolikoak.

Guziagatik ere huna nik zer diotan: — Ifernu-
ko etsaiaren oldar gaxtoeri ihardokitzeko, gure
jaidura tzarren garaitzeko, munduaren sare gal-
korretarik begiratzeko, Komunioea da Jainkoak
eman deraukun laguntza guzietarik hazkarrena;
— Igande eguna nekazalearentzat hauta da
Sakramenduetara hurbiltzeko, orduan ditu jende
xeheak errextasunik handienak, ephea, jaunztu-
ra, bertzeen etsenplu edo ikhusbidea, hitz batez

eginkara lañoenak; — Maiz orok komuniatzea nahi du Jesu-Kristoren maitaguneak, bihotzeko suak. Eta huna amodio horrek egin mirakuilueta-rik bat.

Hamahirur ehun eta berrogoiean (1340), ekhainaren hemeretzian, eritasun luze baten ondotik hiltzera zohan Santa Juliana Falkonieri.

Aspaldi hartan ez zezaken den gutieneko jan-haririk har, ez-eta komunierik egin. Oi zer bihotzmina! Jesusentzat beizik amodiorik ez izanki, eta ezin komunia, ezin bat egin Jesus maite harekin!

Bainan huna haren amodioak zer asmatzen duen. Bere aita kofesora errekeritzen du othoi bere ohe-ondora ekhar dezon ziborioan Sakramendu-Saindua. Kofesoreak ekhartzen derauko, eta Jesus hurbiltzearekin, eri khartsua amodiozko hasperenetan abiatzen da: Othoi, othoi, ezpa-dezaket Komunia, bederen nere bihotzaren gainean emadazuet Jesus!

Mezako oihala bulharretara hedatzen deraukote eta Ostia-Saindua han ezartzen. Eta ordu berean, bihotzari barna Ostia-Saindua, bere bait-harik, sartzen zaio; eta mirakuluzko komunione

hortan emaiten du Santa Julianak bere azken hatsa; eta geroztik haren gorputz sailduak bulharretan ekhartzen du bethi Ostiaren iduria edo zigilua, ezkerreko aldean, bihotzaren tokian.

Horra, horra Jesu-Kristoren amodioa guretzat Sakramendu sailduan, osoki handia, neurrigabea, deus izaririk ez duena, hitz batez Jainkoak baxharrik izan dezakeen bezalako. eta gero zuk horrelako maitaguneari trabak emanen derauzkotzula Mahain-Saindutik urrunduz! Othoi, othoi ez sekulan ahantz hitzeman derautazuna: Igande guziet Mezan komuniatuko duzula zortzitik.

Etxeko Jaunak: —Bai, Jaun Erretora, berriz hitz derauzut Igande guziet jarriko naizela Mahain Sailduan.

Bertze gauza bat ere erran behar derauzut. Dakizun bezala, laborariak eta guziz etxe handi baten nagusi denak, asko griña eta buru hauste baditu. Haurrak, sehiak, lanetako aro gaxtoak, aberetan eritasunak, auzoekin ere batzuetan thirabirak, ez dakit zer eta zer, bethi nonbaitik Khexa-bide frango. Eta herstura horietan nun uste duzu nik kausitu dudala bethi argia, indarra eta sosegua? Igandeko Mezan!

Etxeko nere griñez mintzo naiz hemen, eta ez gorago aipatu bihotzeko eta arimako herstura handiez; eta diot familiako griña arrunt horietan ere Igandeko Mezak gaituela hobekienik laguntzen.

Ez dakit nola, bainan ezin ukhatua dut: Igande goizetan, bizarra eginik, athorra xuria eta soineko garbiak jauntzirik, elizarako bidean abiatu naizeneko deskantsatzen zait bihotza. Eta gero Mezan, ah! han bertze gizon bat naiz, nere arrangura gaxto guziak norapait hegaldatzen dire, gauza guziak begi garbiago batez ikhusten ditut, aldare gainetik bihotzera heldu zait nahigabe guzien alegeraki jasaiteko indar berezi bat. Ori, Jauna, munduko laguntza guziek ez dute neretzat balio Meza ongi entzuna; nekazale akhituak nahi badu bere nahigabetan deskantsatu, Igande guziez elizara ethor dadiela xuxen.

Jaun Erretorak: —Gizona! liburu bat bezala mintzo zare. Egia diozu, nekazaleak Igandeko mezan aurkhituren ditu bethi laguntzarik hoberenak, ez xoilki arimarentzat, bainan oraino askotan bere ardurako nahigabeentzat. Gerthakari huntarik ikhusiren duzu.

Huna zer irakurtzen dugun san Bartelemy martiraren bizian.

Egun batez, meza erratean, prefaziotik lekhorra, luzaz geldi-geldia egoiten da. Ustez-eta ahanzirik dagoen, beetterak ohartaraazten du.

Eta ordutik meza zalhuki badarama azken hitzeraino; eta aldaretik jautsi deneko, eskerrik ere bihurtu gabe, igaiten da ganbarara eta muthil bat oihuka deitzen: Egizu laster, horra diru andana bat, zohaz holako tokira, eta han aurkhituko duzun gizonari, sokha bat besapean dohala, emokozu eta erran: Othoi ez zure buruaz etsi, Jainko bat badela orhoit zaite!

Muthilak laster egiten du eta bere gizona hatzemaiten: Othoi, adiskidea, ez etsi, horra non Aita Bartelemik diru hau igortzen derauzun!

Eta gizon harek nigarrez: Oi Jauna, bi behi galdurik, haurrak ezin haziz, nere buruaren hiltzera nindohan. Bainan orai bertze bi erosiren ahal ditut!...

* * *

Nere adiskidea, egungotz badukegu erranik aski; eta elhestaldi hunen solasik premiatsuenak batetara biltzeko, orhoituren zare Jesu Kristok bere izaite guzia Meza sainduan eskeintzen eta sakrifikatzen duela: 1. Jainkoaren handitasun soberanoari dagokion ospea emateagatik; 2. Barkhamenduzko bitima bezala, zeruko bere Aitaren hasarrea ezitzeagatik; 3. Jainkoak egin ongiez hari eskerrak bihurtzeagatik; 4. Gure arimako eta gorphutzeko behar guziak zeruko gure Aita ganik edozoin hersturetan ardiesteagatik. Zer maitagunea eta zer emaitzak!... Dathorrela beraz neurthitzlaria eta dugun harekin bozkario-tan errepika Aldaretako Jesus onari:

Xoriek badituzte beren ohantzeak,
Urzo tortoilek ere non eman umeak:
Zure aldaretan da nere iheslekua,
Nik han dut edireiten nere sosegua.

Eta orai, adiskidea, bederatziak baitire hurbil, uzten zaitut eta banoha; Jainkoak dizula egun on.

Etxeko Jaunak: —Milesker, Jaun Erretora, ez ditut nik behinere zuk egun erranak ahantziko.

IV.— KAPITULUA

Bezperetara jarraik

Zer den Igandearen ongi sainduestea. — Gure aitzineko giristino onetarik jakin dezakegu hori.

— Zer erran eta zer egin duten Elizako gure arbasoek. — Kontzilioek zer dioten. — Apezpi-ku handi baten hitza. — De Sonis Jenerala Bezperetan. — Giristino hoberenak, Bezperetara jarraikiak. — Bezperetako othoitz eta kantuak, zoin ederrak.

Igande egunaren *ongi* sainduesteko aski othe da goizean meza baten entzutea? Ez, ez da aski.

Oren erdi bat, gorenaz oren bat, Jainkoari emaita, egun osoa zor deraukogularik, nolaz daite hori Igande-egunaren sainduestea? Legeak erraiten du Jainkoari eman behar dela, ez Igandearen *oren erdi bat*, ez eta *oren bat*, baina eguna. Beraz hitzek berekin dakharten egia da hori.

Legearen hitzari eztemozula zure gogorako itzulirik, bihurdikarik; har ezazu bere jite zuzen

eta lañoan; eta ordutik iklusiren duzu *Igande-eguna ongi* saildustekotz, Jainkoari eman behar dela ez xoilki goizean *oren erdi bat* edo *oren bat*, bainan arratsaldean ere Bezperak. Eta horrela, *eguna* emanen deraukozu Jainkoari, goizarekin bezala, arratsaldearekin ere.

Bertzalde, zuk ala nik nola dakikegu lege batek zer hedadura duen, noraino dohan, non gelditu nahi den? Hori dakikegu gutaz aitzineko mende eta gizonen eginmoldetik. Baldin aitzineko mende eta gizonen lege bat hulako edo halako zedarrietan atxiki badute, dakikezu zedarri beretan atxiki behar duzula zuk ere.

Eta beraz, Igande-egunaren saildusteaz den bezenbatean, zer diote gure aitzinekoek? nola jokatu dire, zer egin dute?

Munduaren haste-hastetik Kreatzaileak eguna bi zathitan ezarri zuen: *Factum est vespere et mane dies unus*, goizetik eta arratsaldetik egin izan zen eguna. Hastapeneko egunaren zathitze horri jarraitzeagatik, Moisek bere legean bi sakrifizio ezarri zituen, bat goizean, bertzea arratsaldean. Eta Dabid erregeak goizean eskaintzen zeraukon Jainkoari bere othoitz

berezia, bainan arratsaldean ere halaber eta khar berarekin.

Geroztik, Apostoluak eta Eliza, mendez-mende, ohidura berari jarraiki dire, eta goizean bezala arratsaldean ere Jainkoari eman derauzkote eskaintza edo othoitz bereziak. Huna zer irakurtzen dugun Apostoluen denborako egin-kundez mintzo den liburu zahar batean: Goiz-arrats elizara bil zaitezte eta egunean bietan Jainkoaren ospeak errepika.

Eliza sailduaren lehenbiziko mendeetan girixtinoak goizeko ala arratsaldeko ofizioari egun guziez jarraikiak ziren. Bainan denbora hetan ere etzen eginbide edo obligazione egiazkorik igandetako beizik. Hortakotz dio San Kri-sostomek: Girixtinoa, Jainkoak astearen sei egun zure eskuko uzten derauzkitzu, beretzat aldiz ez du bat beizik atxikitzen; zuzen da beraz egun bakhar haren bi zathiak, goiza bezala arratsaldea ere, eman diozkotzun.

Huna zer dioen Teologo aiphatu batek: Non da nagusia, non da aitzindaria, bere sehia edo bere langilea onets lezakeenik erraiten balaio: Jauna, nere eguna bethe dut, ezen oren-erdi bat

aritu naiz lanean, eta gainerako denbora guzian ez dut nihorentzat deus lanik egin!...

Berdin doha Igandean; ez duzu zeren atrebitu Jainkoari erraitera: Jauna, zure eguna bethe dut, santifikatu dut, ezen oren-erdi batez elizan egon naiz Mezaren entzuten. Uste duzu Jainkoak onets dezakeen horrelako lazakeria? Ni haren Jujamenduaren beldur nindake, gure erran zaharraz orhoituz: *nolako izari, halako sari*.

Zortzi ehun eta hamahirurean (813), Tourze-ko kontzilioak erraiten zuen: Igande egunetan giristino guziek Jainkoaren goستن eta hari eskerrak bihurtzen iragan dezatela denbora guzia, Bezperak erran arte.

Eta geroztik, hamabortz ehun eta lauretan hogoi eta hirurean (1583), Remesgo kontzilioak manu berezi hau ekharri izan zuen: Igande eta phesta egunetan, Jaun Erretorak bere jendea bil dezala, Mezarat eta Predikurat bezala, Bezperetat ere.

Mende hartan berean (1596), huna zer zioen Akileako kontzilioak: Igande arratsaldetan bilkura tzar eta josteta gaxto guzietarik urrundu behar da eta joan Bezperetara. Jaun Aphezpi-

kuek artha berezi bat atxik dezatela herri guzietako jendeak eginbide hortan jarraikarazteko nor bere Erretoraren bidez.

Eta berriki oraino, Frantziako Aphezpiku handienetarik batek zioen: Bezperak zer dire? Igandetako zeremonia premiatsuenetarik bat. Eta noiz dire berezikienik kantatzen herri guziarentzat? Igandetan. Eta beraz ageri den gauza hau da: Elizak nahi duela Igande arratsaldearen hobeki sailduesteko girixtinoak Bezperetara art-hoski jarraik ditezten.

Ez othe dut erranik aski ikhusteko gure mende guzietako arbasoek zer hedadura ezagutu izan deraukoten Igandearen ongi santifikatzeko legeari. Kretzaileak berak munduaren haste-hastetik, eta gero Moisek, Dabidek, Apostoluek, kontzilioek, Teologoek, mendez-mende eta goraki errepikatu izan dute, Jaunaren eguna *ongi* santifikatzekotz, behar dela goiza bezala arratsaldea ere Jainkoari kontsekratu. Eta nola hori? Elizak nahi duen bezala, *Bezperetara jarrakiz*.

Hortakotz aurthen berean, 1894, urtharilaren hogoi eta hamarrean, Katolikoan biltzarre handi batek xede berezi hau goraki hartu izan du: Bilk-

hura hartako gizon guziak Bezperetara jarraiki-
ren direla bethi Igandearekin Mezara bezain
ongi.

Mila zortzi ehun eta hiruretanhogoi eta
hamekan (1871), gure harmadetako Jeneral aip-
hatuenetarik bat, *de Sonis*, Pariseko eskola
handi baten ikhustera joan zen Igandearekin.
Kolejioan sartu deneko, izkilek Bezperetako deia
joiten dute. Eta zer uste duzu Jeneralak egiten
duela? Bere bisitaren ariaz gibelaraziko othe ditu
Bezperak? Ez, urrun da! Berak entzun nahi ditu
Eskola guziko hirur ehun muthil gazteekin. Ber-
tze egiteko guziak bazterrerat utzirik, kaperara
doha xuxen, eta han dago Bezperak burutik-buru
akhabatu arte. Eta gehiago dena, kantu eder
hek, aldareko aphaindura aberats hek, eta azke-
nik Sakramendu Sainduaren benedizioneko argi,
othoitz eta bildutasun khartsu hek, hainbertzeta-
raino bihotz guzia hunkitzen eta hausten derau-
kote non nigarrak gainditzen baitzerauzko. Eta
guziak elizatik atheratu-eta ere, han gelditzen da
oraino luzaz Jeneral *de Sonis*, are osokiago goza-
tu beharrez Bezpera hekietarik bildu duen pro-
betxua eta atsegina. Gero, elizatik atheratu

denean, eskola handi hartako muthil gazteak biltzen ditu eta guzleri Bezperetarako jarraitasuna bizi guzikotz gomendatzen.

Egun hartan berean, Igandearekin eta Bezperetako denboran, huna zer gerthatu zen Pariseko kolejio edo eskola hortarik hurbil.

Parisen orotarik ikhusten da, on ala tzar.

Beraz, eskola hortan Bezperak ari zirelarik, gizon arnotu bat ostatu eder baten aitzinean xutik zegoen. Zer ari zela uste duzu? Ostatuko athearen neurtzen. Behin, bietan, hiruretan izariak har; gero berriz ere atheari so, eta alde guzietarik ikher eta hunki; azkenean bere mihi mothelarekin dio: «Bi metre gora, metre bat zabal, ez dezaket nik hori sinets!...».

Zer bada ez dezakezu sinets? galdatzen derauko adizale batek.

«Ez dezaket sinets athe hau hoin ttipia dela, ezen banituen idiak, banituen arthaldeak, banituen landak eta phentzeak, eta guziak sekulakotz ostatuko athe horri barna iragan dire! Ez dezaket hori sinets... Eta arditik nihon ez dut...».

Gizon hori laboraria zen, hirirat Igandearekin ethorria, maiz gerthatzen den bezala Pariseko

inguruetan. Ostatura jarraiki orde, Bezperetara jarraiki balitz, ez bide zen arditik gabe geldituko!...

Bai horrela da. Jainkoari khen, debruari eman, dio erran zaharrak. Elizatik kanpo dabilana Igandetean, ostatuari jarraikitzen da; orduan zaio phizten, suhartzen, osoki moldegaizten eda-neko thirria, galkor bezain ahalkegarri dena, arima, gorphutza, ohorea, oro joiten eta galtzen dituen.

Igandeak urrundu behar ginituzke bekhatutik, eta aldiz ostatuak ez du are barnago beizik gizona pulunpatzen bekhatuzko leizetan.

Igandeak deslothu behar ginituzke asko pendura lurtiar hastiagarrietarik, hala-nola jan-edanetako eta lohikeriazko zoramendu batzuetarik, eta aldiz ostatuak gorphutza berotzen du, nahasten, deboilatzen, sordiesten.

Igandeak arimari indar berri bat eman leraukio ongiarentzat; eta nola aste guzian arima hori esku-lanetan oro griñaturik, ithorik eta ehortzirik bezala egon baita, ah! Igandeak behar luke xutiarazi, altxatu, bere Jainkoarekin bekhoz-bekho ezarri, zeruko alderat hegaldarazi; eta

aldiz ostatuak zer egiten du egun hartan berean? arima gaixo hura goratu behar orde, ez du are ahalago beizik ukhurtzen eta lurtiartzen.

Jainkoak eman derauko gizonari arnoa bainan izariz eta beharorduan edateko, bere nekezardieri hobeki ihardokitzeko, bere eritasun eta goibelduretan on egiteko, ahideri eta adiskideri zor zeraukoten bihotz edo arraitasunaren agertzeko. Eta zer gerthatzen da? Jainkoak egin emaitza hortaz beraz gizona baliatzen harren laidostatze eta Igande egunetik debruaren egun bat egiteko.

Horra igande edo besta arrats bat; hordikeriari eta asekeriari emana den gizona heldu da etxerat, Jainkoak daki nola eta Jainkoak daki noiz, Bezperetako denbora eta arratsalde guzia ostatuan iraganik. Emazte hiratu bat han dago, nigarrez urturik, bere lagunaren beha; eta jin zeraukonean, ai ezin jasan dezake haren moldegaizkeria. Bihotzak goiti egiten derauko eta hasten da zerbaiten erraiten. Bainan horra non atheratzen diren gizon hordiaren ahotik madarizione, juramentu, etxea errotik eraman dezazketen

zer-nahi burho ikharagarri; sukhalde harek, gan-
bara harek, ifernu bat iduri dute.

Oi emazte dohakabea, atxik ezazu, zapha,
bortxa zure bihotza eta bereziki zure mihia, ber-
tzenaz eroriko dire zure gainera eta zure haurren
gainera, solasik borthitzenak, egintzarik gogo-
rrenak. Horiek dire bai zinak eta minak, eta biz-
kitartean hobe oraino, miletan hobe ixilik egoi-
tea. Erran zaharra da:

Zeha ezak ona, hobeturen duk,
Zeha ezak gaxtoa, tzarturen duk.

Jainkoari altxa zozu bihotza, othoitz egizu
haren kurutze sailduaren oinetan, eta bertze
ordu batez balia zaite zure lagunari erran behar
direnen erraiteko.

Horrela ditu etxeakoak asaldatzen eta zori-
gaizten, Bezperetara jarraiki behar orde lgan-
dea ostatuan iragaiten duen gizon zintzurkoiak. Eta
bertze desmasiarik ere baderabila, bere ontasu-
nak xahutzen ditu. Alde batetik ostatu hartan ez
dazkote kitorik emaiten bere jan-edanak; eta
nork erran zer sosak ez dituen hor iresten urthe-

buru batetik bertzera? Eta bertze aldetik zonbat eta zonbat jende atrebitu ez dire baliatzen edale horren trenpu nahasiez, zer-nahi amarru eta maltzurkeria sakatzeko?

Jende atrebitu horiek badukete gizon gaizo horrek ez bezalako sosik; bainan ikhusten arnotua dela eta baliatu nahi, erran zaharraren araurra jokutzen dire: *Ardia ahuntzari ileketa*.

Nihaurek ezagutu izan dut Etxeko-Jaun bat, familia handia eta ontasun ederrak zituena, bainan Igande gehienez, goizeko Meza entzun eta ostatuan sarturik, han bazkal eta han afal, deus Bezperarik gabe, jan-edanean ausarki zegoena.

Eta huna zer egin zeraukoten adiskide etsai batzuek.

Adiskide horiek ziren bi Etxeko-Jaun zorrez gaindituak eta ezin ihardokiz, bethi diru maileatzen ari zirenak. Emaki-emeki, ostatuan burua beroazi-eta, zortzi milaliera maileatu zazkoten; bertzalde dotzenabat milalieraren bermegua sinarazi; eta azkenean bi adiskide horiek Ameriketarat joan ziren ihesi, hekien etxeak saldu zituzten, eta gure Etxeko-Jaun edaleak ez zuen arditik bildu bere hartzetarik, bainan bai berme-

gua zozo hek oro pagatu. Errana den bezala gerthatu zaukon: *Non fida, han gal.*

Hortik ageri da zer ostikua eman zeraukon bere etxeari. Bera hil da, arnoak gazterik itho du; bainan haren ontasun ederra ere zorrek eraman dute, eta haren familia handia, norapait barheiaturik, ahal den bezala bizi da.

Bethidanik ikhusia dena giristinorik hobere-nak arthoski jarraikitzen direla Bezperetara. Neronek gizon gazte bat ezagutu izan dut ez baitzuen Bezperarik sekulan huts egiten, eta ordu beretik herritar guziek ikhusbidetzat baitzedukaten; ororen lorea eta argia, egiatzko saindua.

Haren besta eta atsegin guziak izatu ziren bethi elizan, etxean, Bezperetarik lekhora pilota-partida eder batzuetan.

Ilhabete guziez eta artetako besta gehienez kofesatzera eta komuniatzera xuxen ethorriko zen.

Eta sekulan haren ahotik den gutieneko elhe arhin edo lizunik. Gogoan zarabiltzan bethi Jaundone Pauloren hitzak: «Jainkoaren nahia da izan zaitezten saindu, eta hortarakotz begira zaitez-

ten lohikeria guzietarik, eta batbederak garbi atxik dezan bere gorphutza».

Jitez hazkarra zen eta osasun onekoa, bainan bihotzmin bat handia garraiatzen zuen aspaldian berekin. Gazte-gazterik eta ezagutu gabe, galdu zuen bere Ama, eta hamabortz urthetara hel-tzearekin bere Aita maitea ere hiltzen ikhusi zuen. Ez ziren bi haurride beizik gelditu, hura hamabortz urthetan, eta bertze anaia bat hogoi eta bat urthetakoa. Anaia hori soldado joan behar izan zen; eta Jainkoaren nahia! eritu zen laster eta hil.

Horra beraz baxharrik lur huntan gure muthil gazte prestua. Oi zer nigarrak! eta ere zerurat laster hegaldatzeko zer gutizia, zer lehia, zer ezin-egona!

Aita Ama maiteak, zertako mundutik
Zerurat joan zineten ni hemen utzirik?

Ez dut mundu hunetan izan sosegurik,
Ez baitut ezagutu amaren mintzorik.
Anaia bat banuen haurra nitzalarik,.

Soldado joan zen eta nik ez dut berririk;
Aita Amekin dela ez dut ez dudarik,
Eni begira daude hirurak zerutik.

Emeki-emeki bihotzmin horrek osasun guzia galarazi zeraukon. Bainan lotsatzetik urrun, gorputza eriago eta arima hazkarrago, irriz zagon heriotzeari. Bi ilhabetez egon zen ohean gelditurik. Egun guzietz ibiltzen zitzaion bere Kofesora, eta astean behin, larunbatean, Ama-Birjinaren egunarekin, ekhartzen zeraukoten komunioea, bere Jesus maitea.

Oh! muthil gazte hori dabilke beraz lañoki lurreko ilhunpe huntarik; Jainkoak bere besoetan harturen du; eta horra non haren bilha dathozin zerutik Aita, Ama, Anaia!...

Hemeretzigarren urthean hil izan zen.

Gora zare hegaldatu,
Uso garbi aratza:
Mundua duzu gaitzetsi,
Ikustea berantetsi
Aingeruen egoitza!

Botz osoki ederra zuen muthil gazte horrek, kantari gozoa eta trebea zen, Igandeko meza-nagusian eta bezperetan eliza guzia xoraturik zedukan galeria gainerik. Bainan mezan baino ere hobeki Bezperetan zuen kantatzen, eta huna zertako. Bere adineko gizon-gazte andana bat elizan ongi kantatzera moldatu zuen Jaun-Erretoraren laguntzarekin, eta nola Igande goizetan ezpaitzitezken guziak Meza ber batetarat ethor, eta aldiz bai errexki Bezperetara, orduan zuten hobekienik elkar aditzen orok batean kantatzeko.

Ez dut nik sekulan halako Bezpera ederrik entzun, eta guziz *Magnifikatean*, gure muthil gazte prestu hunek bertze guziori berak bakharrik ihardesten zuenean; ez dut uste deus xorgarriorik baditekeen. Biba Eskualdunak!

Aspaldi bizi gare Kristoren legean,
Betitik sinhesirik Jainko bakharrean.
Igandetan lorian gure elizetan,
Guziak garelarik kantaz hari betan.

Bai, Igande arratsaldetan eliza jendez bethea eta guziak elkarrekin deblauki eta bozkariotan kantuz ari, ah! zer daiteke ederragorik?

Jaundone Paulok dio: Gaindi bedi Kristoren bozkarioa zuen bihotzetan, eta haren hitza zuen aho-mihitan maiz ibil bedi, elkhar berotzen duzuelarik psalmo, himno eta kantika izpiritua-lez, Jainkoari eskerrekin bihotzetik kantatuz.

Eta lehenago Esther erreginak othoitz hau egin zeraukon Jainkoari: Oi Jauna, nere othoitz entzun ezazu, gure nigarrak bozkariotara alda zaitzu, ospa dezaguntzat zure izena; ez hets othoi! zu kantatzen zaituzten ahoak.

Ez zioen ez ustegabeen izkribatzaile aipatu batek: Aingeruetatarik heldu zerauku kantua, bere egiazko ithurburua zeruetan du.

Urrunago ere badoha bertze bat: Ez xoilki aingeruetarik, baina Jesu-Kristo beraren ezpainenarik atheratuak dire elizako gure kanta ederrak, *et hymno dicto exierunt in montem Oliveti.*

Jarraik beraz Bezperetara eta han bihotz guziz errepika psalmoak, himnoak, kantikak, *commonentes vosmetipsos psalmis, hymnis et canticis spritualibus;* eta zerutik jautsi kantu Jainkozkoen bidez, gaiten zeruan berean aingeruekin khantatzerat hel.

V.— KAPITULUA

Bezperen ondotik nola iragan denbora

Bezperen ondotik gizon gazteak plazan hazkarki jo dezala pilotari. Zaharrek aldiz musian dukete libertimendurik hoberena. — Bainan batzu ala bertzeak etxerat bil goizik. — Neskak gaztea Bezperetarik dohala xuxen etxerat edo Seroretarat. — Aita-Amekin, familian, zerbait itzuli egin daiteke.

Bezperen ondotik Igandearekin zer egin, nola bil arratsa? Ez da aski elizan othoitz eta kantu egitea, handik kanpo ere behar da aphurbat deskantsatu. Neurthitzlariaren errana da:

Eskualduna, lurreko jendaia guziek
Bethitik alegera ezagutu ditek;
Ez ahal duk ganbiatzen engoitik hasiko,
Larrua aiseago bide dik galduko.

Bai Igandeko bezperetarik lekhora behar du jendeak deskantsatu, bainan nun eta nola?

Hasteko muthil gazteak plazara dohazila eta pilota-partida eder bat egin, laxoan, errebotean edo bederen plekan, eta amore onarekin ibil nahi bezenbat laster eta jauzi. Joko guzietan ez da deus hain ederrik nola Pilota. Ziberuak eta Garazik galtzen ari dute; hanbat gaxto hekientzat; bainan oraino Laphurdik pilotari ederrak baditu:

Pilotako jokora agertzen denean,
Galtzak eta athorra baxharrik soinean,
Atzetik bildu jendek egiten aithorra
Gazte lerdena dela muthil Laphurtarra.

Agian bethi Laphurdiko gazteriak pilotaren trebetasuna atxikiren du. Bainan diot berriz ere Ziberuak eta Garazik joko eder hortan jarraiki behar luketela:

Ez dire Baxenabar
ez eta Xubero,
Eskualdun joko huntan
aspaldi hain bero.

Eskualdunak pilota
utz baleza, gero,
Kaskoindu dela fama
laster jarraik lero.

Horra, beraz —ez ofizioetako denboran, ez—,
bainan Bezperetarik lekhora, horra muthil gaz-
teentzat libertimendu guzietarik ederrena eta
hoberena: Pilotan aritzea alegeraki eta hazkarki.

Libertimendu gaxtoetarik aldiz, eta guziz
dantzatik, Igandearekin are osokiago urrunt dite-
zela gazteak, ezen ardurako egunetan ere gaizki
denaz geroz dantza, zorbatez ez da gaizkiago
Jaunaren egun sainduan?

Elizako Aiten arabera, deusere ez da hirrisku-
tsuagorik dantza baino. Guziek, boz batez,
arbuiazen eta debekatzen dute libertimendu
arimen galgarri hori.

San Ambrosio, Elizako dotor eta argi handiak
dio, dantza eta lohikeria elgarrekin dabiltzala.
San Efrenek aldiz dio, dantza jende gazteen gar-
bitasunaren hobia dela, zeruaren dolua, ifernua-
ren bozkarioa, debruaren balentria.

San Ambrosiok dio oraino, ez dela dantzarat hurbiltzen jende ohorezkorik ez eta kontzientzia minbera duenik.

Eta huna san Agustin handiaren hitzak: Hobe litake besta-igandetan lur iraultzen aritzea eze-nez eta dantzan.

Gizon girixtino onek eta egungo eguneko dantza itsusien berri ongi dakitenek goraki diote, begi garbiz ezin ikusiak direla. Bertzalde, aski dugu Ebanjelio sailduaren zabaltzea, eta han ikhusiko dugu eta mende guziak ikhusiko dute Jaundone Joani- Batistaren burua dantza baten eta dantzari lohi baten saria izan dela. Beraz, gazteak, urrun, urrun egon zaitezte libertimendu edo josteta galkhor hortarik bai-eta hori maite dutenatarik.

Gizon adinekoek ez dute Pilotan aritzeko ahalik. Errainak gogortu, besoa phizutu, bixta laburtu, ai! pilotak hekientzat aspaldian egin du bere aldia. Gaurgoitik emekixago behar dire libertitu. Zer jokotan gehienik? Neurthitzlariak erraiten deraukote:

Asko gizon herritan, Bezperen ondotik,
Hurbiltzen dire pausuz *museko* tokitik;
Alegeratzen dire, oihuz *hordagoka*,
Mahain berean jarriz lau edo seirazka.

Bainan gero gaztek ala zaharrek zer egin behar dute ilhunduz geroztik? Etxerat tenorez itzuli, ostatu galgarri hetan gelditu gabe. Ostatuetan berant egoiteaz geroztik, hobe laiteke miletan Bezperetara sekulan ez ethortzea, plaza-ko alderat den gutienik ez hurbiltzea. Beraz, gizon maitea, ostatueta berant egoiteko eritasunaz hartua bazare, bazkal-eta etxean geldi zaite, erran zure arrosarioa eta denbora pasa etxondoko eremuetan.

Neskatxa gaztez den bezenbatean, Bezperetarik lekhora ez dute bertze biderik hartu behar baizik ere etxeratekoa, non ez diren Serorak hekien herrian. Serorak balinbadire, dohazila hekien gana eta han beren lagunekin apuribat liberti. Bainan ahalaz goizik behar dire nor bere etxera bildu. Hekientzat bereziki eginak dire neurthitz hok:

Bego etxeko xokoa oraino nor-berari!
Bego ait-amen etxola haur zuhur denari!
Etxea bethi etxe da, zonbat den itsusgarri;
Kanpoa bethi kanpo da, zonbat den edergarri.

Etxean pena guziak dirade kontsolatzen;
Etxean zauri minenak noratbait-ere hertzen.
Irriak, solas gozoak, non dirade han baizen,
Gaualderra familia denean bateratzen?

Asko jendeentzat, Bezperetarik lekhora itzuli bat bidearen gainean Aita-Amekin edo haurridekin edo adiskide zonbaitekin, egiazko deskantsua da. Itsas-hegian direnek itzuli hori maiz untzitxo batean itsasoari gora egiten dute, eta nik uste deskantsatze ederragorik ez daitekeen. Neronek huna zer ikhusi dutan berriki.

Jaun aphez bat eta untzi-kapitain ohi bat, Ziburuko hegitik itsasoari gora joan ziren Bezperak erran-eta. Mariñel zahar bat, Ganix, zuten untzitxoaren bidari. Urteko arorik ederrena zen, uztaila; itsasoak lo zagoela iduri zuen, ezti-eztia, den gutieneko goibeldurarik gabe; haize laño eta gozo batek ur-axala zimurdikatzen zuen, hala-

nola behar ondo gurdoa gure phentze gizene-tan, eta untzitxoaren oihala hanpaturik zedukan, behi esnedunaren errapeak iduri; eta iguzkia aphaltzen hasia zen, bainan oraino bere argi guziarekin, deus phindar borthitzik gabe, itsasoa amultsuki ferekatuz, Ama on batek bere haur maiteari egiten deraukon bezala.

Untzitxoa haizeak hegaldaka zeramalarik, gure hirur Jaunek bazuten elkharrekin zer erran. Aro eder horrek phizten zeraukoten bihotza eta zalhutzen mihia. Huna hekien solasetarik zer-bait.

Kapitainak: —Jaun Apheza, zer diozu denbora huntaz? Othe daiteke gure begiek dakusaten ikhusgarri hau baino xoragarriagorik? Eta nola ez orhoit gure Jainkoaz horrelako gauza ederrak mirestearekin? Goraki erran dezaket Mariñelak itsasoan Jainkoa kasik bekhoz-bekho ikhusten eta hunkitzen duela.

Jaun Aphezak: —Bai, hola da, alde guziz egia diozu, bainan Mariñelaz bezain ongi laborariaz ere eta gogo zuzeneko gizon guziez gauza bera erran dezakegu.

Ezen nor nahik zerurat altxa dezazke begiak eta ikhus iguzkia, ilhargia, hanbat mila izar, gaineko eremu eder eta zabalaren hedaduran hain arrimu xoragarrian ezarriak. Beren itzuliak hain xuxen egiten dituzte; eguna eta gaua, uda eta negua bere denboretan, behinere huts egin gabe, ekhartzen derauzkigute!

Nork bada, Jainkoak baizen, ezarri ditu eta daduzka arrimu eder hortan? Nork darabiltza hain xuxen beren itzulietan? Ezen ikhusia da horrelako arrimu ederrak norbait nahi duela egilerik, aphaintzalerik, eta mendez mende iraunarazlerik. Eta berriz ere, nor daike hura, Jainkoa baizen?

Horren gatik zioen Dabidek: Zeruek derrate Jainkoaren ospea, eta oltzeak diotza haren eskuetikako lanak.

Hola behar ginduke bethi gauza eginetarik hekien egileraino igan. Gainerakoan, kanporat ilkhi gabe ere, Jainkoa geroni baithan kausituko dugu. Badugu ezen arima, badugu gorputza; nork uste duzu elkharri iratxiki dituela bi gauza horiek —beren baithan arras desberdinak—, hain hertsiki non, gorputza ongi denean arima boz,

eta gorputza gaizkitzen denean arima ere ethentzen bezala baita? Berriz, gorputzean baditugu begiak ikhusteko, beharriak aditzeko, mihia mintzatzeko, eskuak eta besoak lanean aritzeko, eta bertze hanbat indar eta gai biziko beharrentzat... Uste duzu gizonek eginak direla horiek? Ez, ez; Jainkoak baxharrik egin ditu, eta hari baxharrik zor deraukogu esker eta maitagune.

Hortik, Jaun kapitaina, zure erranari nere ihardestea: Bai, mariñelak bezain ongi laborariak ere eta nor-nahik, ala bere baithan ala inguruko gauzetan, Jainko handia ikhus eta hunki bezala dezake.

Mariñelak: —Nolaz daiteke bada Jainkorik ez dela aiphatzerat ere atrebitzen direnak?

Kapitainak: —Ai Ganix, nik bezala ikhusi bazinitu munduko bazter eta zokho beltzak, bazinakike bai zertako duten Jainkoa ukhatzen. Ukhatzaile horiek badakite gezurrez mintzo direla, eta ez dute nahi argitu, eta denborarekin are gehiago borthitzen dire beren gezurretan. Gure arbasoen errana gerthatzen zaie:

Bere nahiz eri denari
Nork emanen dio osagarri?

Jainkoak begira behin jaidura tzarrereri esku hartzerat uztetik; ezen hetarik ilkhi lanho beltzak adimendua bera goibelduko eta itsutuko du. Eta horra zer gerthatzen zaien Jainkorik ez dela erraiten duteneri. Egundainotik nabaritu izan da, Jainkorik ez delako ausartzia hortarat erori eta atrebitu direnak, bihotz galdu eta bethi kasik bekhatu ahalkagarrieneri saldu batzu izan direla. Alabainan badakusate, Jainkorik balinbada, hekien etsaia behar dela izan, bizi diren urratsetan bizi direno. Nahi lukete beraz ezbalitz Jainkorik; eta nahi horrek dakharzke Jainkorik ez dela erraterat.

Jaun Aphezak: —Bainan, Jaunak, zer zauzue gure solasez? ez othe gare deskantsatzera abiatuak itsasoari gora eta ez prediku entzutera? Meza-Bezperetan ginen hirurak, ez othe dugu Igande hunentzat eginik aski? Hots beraz bertze solas arhinago zerbait!...

Jaun Kapitainak: —Ez dakit baduguntz Igan-dearentzat eginik aski, bainan gure Katexima

zaharrak Meza-Bezperetarik bertze zerbait ere nahi zuen. Huna zer dioen hitzez-hitz:

«Igandetan bat bedera hari bedi zombait liburu debozinezkoren irakurtzen, edo kateximaren irakasten bere haurrei eta sehiei, edo bere anaiei eta arrebei, edo aizpei».

Eta beraz, Meza-Bezperak entzunagatik, gure solas Jainkozkoa luza dezagun eta garbi.

Hauxe zait eder, ni bezalako kapitain zahar batek Jaun Aphez bati erraiten baiterauko jostetak utzirik solas Jainkozkoetan berma dadien! Othoi barkaturen derautazu. Nere haur-denboran gure Ama gaixoak ezginituen Igandearekin behinere afariterat utziko non ez ginuen lehenik anaia-arrebek elkarrekin Saindu baten bizia irakurtu.

Horrela zen lehenago Igande eguna atxikitzen. Ez xoilki Meza eta Bezperak, baina oraino arratsaldetan irakurtze onak, edo Sainduen bizian, edo kateximan, edo Testament zahar eta berrian.

Jaun Aphezak: —Zuk uste baino atsegin handiagoa egiten derautazu. Nere solas goraitiarrez zuek akhit beldurretan nindagon.

Zure hastapeneko elheari nago beraz, Jaun Kapitaina.

Ederki mintzatu zare. Apostolu handiak bezala egiten duzu, eta gorphutzeko begieri agertzen diren gauzetarik indar hartzen du zure bihotzak, orai ezin ikhusizko goratasunetarat altxatzeko.

Bainan bertze kreatura guziek baino ere gehiago, itsaso eder hunek gaitu Jainkoaren ganat altxatzen. Beha: — Itsasoa handia da, zabala, mugarik gabea; eta zonbat nahi urrun Mariñelak bere begiak heda ditzan, bethi urak ditu ikhusten, bethi uhinak, bethi ezin asmatuzko eremu leihorgabe lotsagarriak. Horrelakoa da Jainkoa ere, handia eta osoki izarigabea. Bai eta itsasorik zabalenak gainditzen ditu, eta hedatzen da leihorraz haratago, eta zeruak ere ez dire herrauts pikor bat baizen haren aldean, eta mundu guzia bere eskuko erhietan darabila. Hortakotz zioen Moysek: Jakin zazue beraz eta gogotan har, Jainko bezala, Jauna aurkhitzen dela zeru-gainean eta lur-beherean. Eta Jobek: Zerua baino goragoa da, ifernua baino barnagoa da, haren hedaturak gainditzen ditu lurraren luzetasuna eta itsasoaren zabaltasuna. Berdin Dabid

erregeak: Norat ihes egin dezaket zure begietarik? zerura igaten banaiz, zu han zare; ifernura jausten banaiz, orobat han zare; eta goizetik nere hegadak hartzen baditut eta itsasoaz harat joaiten, oraino ere zure eskuak hatzematen nau.

Bai, bai, itsaso eder hunek gure gogoan Jainkoaren ganat altxatzen du. Izpiritu-Sainduaren beraren errana da: Jainkoa itsasoko uhinen gainean darabila: *et graditur Deus super fluctus maris*.

Bai eta itsasoko leizetan barna jautsia dago Jainko handi hori: *numquid ingressus est profunda maris?*. Jainkoak ditu ibilkatzen eta moldatzen itsasoaren indarrak eta ezitzen haren uhin bortitzen oldarra: *tu dominaris potestati maris, motum autem fluctuum ejus tu mitigas*. Horrela, haizeri eta itsaso hasarretuari manatu zeraien Jesusek, eta jabaldura gozo bat egin zen: *Jesus imperavit ventis et mari, et facta est tranquillitas magna*. Eta Jesus amultsu hori bera, leihorreko bideetan bezala, itsasoaren bizkarrean ere urezur oinez zabilan: *Jesus venit ad eos, ambulans super mare*.

Hortik, berriz ere diot Jainkoa osoki ederresgarri dela itsasoaren hedadura, barnatasun, kalerna, gozo eta bertze goiti-behera guzietan: *mirabilis in altis Dominus*; eta bortxaz ere mariñel bat behar dela bethi Jainkotier eta girixtino on.

Mariñelak: —Ai Jaunak, zuek errexki mintzo zarete. Aithortzen dut bai egiak direla zuen elhe guziak eta Mariñelarentzat ez daitekeela itsasoan luzaz irauterik non ez duen bere bihotza Jainkoaren baithan bermatzen eta hazkartzen. Bainan itsasoak, zuek uste baino bihotzmin gehiago emaiten derauku. Eta hemen mintzo naiz nerek jasan minez, mintzo naiz nere barne guzia bethi zaurthurik dadukaten zorigaitz ezin ahanztiez. Itsasoa ederra dela!... bai hala da; beha ordean, beha leize beltz horri; nik hor baditut bi seme, gazte-lorean irhetsiak, bethikotz galduak!...

Hitz horietan, Mariñel zaharraren begietarik bi nigar handi jautsi ziren.

Kapitainak: —Bai, hala da, nere adiskide on hunek itsasoan bi seme galdu izan ditu. Eta nola-koak! batek hogoi eta zortzi urthe, bertzeak

hogoi eta laur, biak berriki ezkonduak eta haur gazte aingeru batzuez inguratuak, ai zer lastima eta zer bihotzmina! Untzirat igan eta ilhabetea gabe, Ternuako hegieta galduak zirela ethorri zen berria. Eta geroztik haur gaixo hek, emazte alhargun hek, Aita-Ama zahar gaizoez, oi zer nigar ibaiak ez dituzte ixuri!

Nik ere orduan egin nuen nigar, eta huna non diren nere nigarrak neurthitzetan neronek ezarriak; bihotzaren erditik atheraiak dire; zuek ere, Jaunak, bihotzez entzun zaitzue.

Mariñelen emazteak,
Hainitzak senhar gabeak:
Bainan gure nigarrari,
Bedi Jesus gozagarri!

Elkhardanik urunduak
Berriz biltzen tu Zeruak:
Zenbatez triste bizia,
Hanbatez eder saria!

Eta horrela gure gazteria guzia herritik norapait, urez-ur, itsasoa gaindi, urruntzen zaiku. Eta

nor dire etxerat itzultzen direnak? Ai! ez hainitz. Ez duzu hemen ikhusten gu bezalako zahar ezindu batzuetarik baizen; gazteak, herriko loreak eta bozkarioak, edo itsasoko bide leizetsuetan dabilta, edo itsaso beltz hunek oraikotz irhe-tsiak ditu.

Eta, borthitzago ere dena, zonbat aldiz ez ditut neronek ur-hegi huntan ikhusi gure gazte maiteak, beren itzuli handia itsasoan egin-eta, untziarekin galtzen, hemen berean, gure begien aitzinean, kasik gure besoetan.

Donibane, Ziburu, Hendaia, Hondarrabia, Getharia, Bidarte, Miarritze, zonbat aldiz ez ditut zue zuen semeak harroka gaitz haukietan beren untziarekin lehertzen ikhusi?

Ai etxe guti duzue zuen eremuetan haur bat edo bertze hemen galdu ez duenik.

Itsasoan ikhus zazu
Untzi diruz bethea;
Orai artean egin du
Bai ausarki bidea;
Uhinak dire aphaltzen
Haren ingurunetan,
Haizeak ditu hanpatzen
Haren belak lorietan.

Hurbildua da porturat,
Aberats eta eder;
Horra non dohan sartzerat
Zalhurik eta laster.
Beha! biltzen ari ditu
Hagetako oihalak:
Hala xoriak hesten tu
Lokhartzean hegalak.

Bainan kolpez altxatzen da
Furian zirimola,
Untzia kostara doha
Bazterka dabilala.
Ai! hara non den borthizki
Uhinekin guduan,
Galdu behar du tristeki
Portuaren onduan!

Jaun Aphezak: —Nere adiskidea, ederki erran
duzu zure neurthitzetan:

Zonbatez triste bizia,
Hanbatez eder saria!

Zuk bezala nik ere badakit itsasoak leizetarat daramatzala gure gazte maiteetarik asko; eta eskualde hotan Aita eta Ama frango nigarretan dagozi beren umeak horrela galdurik; bainan girixtino onaren bihotzminari datxeko bethi Jainkoaren laguntza, eta darraizkigun gaitz guzieren Jesusek sendagailu bereziak emaiten derauzkote. Balethor ere minik borthitzena, etsimendua, Jesus ona lethorke Lazaro hilari heldu zitzaion bezala, eta erran liru etsitu dohakabeari: Hobi beltz hortarik elkhi zaite, eta zure nahigabeak diraueno daramagun elkharrekin, eta biek, zuk eta nik, Kurutze bera besarkaturik garraia dezagun.

Mariñelak: —Oi Jaun Apheza, zure elhe onek bihotz guzia eztatzen deraudatet; ene arima zaurthuaren gana dathozi, ur gozoa lur agortuaren gainera jausten den bezala.

Bainan ez dautazu hitzik erran Ama-Birjinaz. Hura da mariñelen Ama berezi-berezia. Beha hantxe-harat, ikhusten duzu Urruñako mendian

Kapera xuri hura?... Sokorriko Birjinaren kapera da:

Tenpestaren erdian, itsaso gainean,
Xalupa bat saltoka dabil lanjerean,
Mariñelek ez dute segurki orduan
Othoitz alferrik egin Sokorri gogoan:
Ama Sokorrikoa, othoitzen zaitugu,
Zure haurrak baikare, begira gaitzazu.

Solas horietan gure hirur Jaunak Ziburuko portuan sarthu ziren eta nor bere etxera gan.

VI.— KAPITULUA

Igandiaz zer dioten bi liburu zaharrek

JAINKOAREN HIRUR GARREN MANAMENDUAZ

G: Zein da Jainkoaren hirur-garren manamendua?

I: Igandea begira eta santifika detzagula.

G: Manamendu huntan zer manatzen zaiku?

I: Manatzen zaiku Igandea sainduki iragan detzagula.

G: Zein zen lege zaharrea Jaunaren errepausuko eguna Juduek santifikatzen zutena guk Igandea santifikatzen dugun bezala?

I: Hura zen Larunbata, zeren egun hartan Jainkoa errepausatu baitzen mundua kreatu zuen ondoan.

G: Eliza Ama Sainduak zergatik santifikatzen du Igandea?

I: Zeren hura baita eguna, zeinetan Jesu-Kristo gure Jauna bere phizteaz edo resurrezioez sarthu izan baita bere errepausu eternalean.

G: Zer egin behar da Igandea sailduki iragiteko?

I: Lehenbizikorik: Egun hura iragan edo enplegatuta behar da Jainkoaren zerbitzuan. Bigarrenkorik, egun hartan nekhasale lanik ezta egin behar.

G: Zer egin behar da egun hura Jainkoaren zerbitzuan enplegatzeko?

I: Meza oso bat entzun behar da egun hartan, eta bere faltaz entzun gabe gelditzen denak bekhatu handi bat egin du.

G: Aski da gorphutzez Meza Sainduan aurkhitzea?

I: Ez, han egon behar da atenzione eta debozione handi batekin.

G: Igandearen santifikatzeko ez othe da aski Meza ixil bat entzutea?

I: Ez, ahal bezanbatean kausitu behar gara bertze alde Elizako Ofizo Dibinoetan, eta herriko Elizan egiten diren pregariorietan edo instrukzio-

netan, eta egun hartan hari behar gara obra onen egiten.

G: Zer aditzen duzu egun hartan egin behar eztiren nekhazale lanez?

I: Aditzen tut bereziki nekhazaleak bere biziaren irabazteko egiten dituzten esku lanak.

G: Zeri gehienik ihes egin behar zaio egun hartan?

I: Bekhatuari, eta bekhatua egin ahal dezaketen gauza guziei.

G: Igandiaz berze alde ezta bertze egunik santifikatu behar dugunik?

I: Bai, santifikatu behar tugu oraino Jesu-Kristo gure Jaunaren Bestak Birjina Sainduaren eta bertze sainduen Bestak Eliza Ama Sainduak manatzen darozkigunak.

G: Nola behar dire santifikatu Besta egun hek?

I: Igandea santifikatzen den bezala.

G: Nor dire manamendu hunen kontra maizenik bekhatu egiten dutenak?

I: 1. ehenbizikorik: Hek dire Ofizio Dibinoetara eta Elizako instrukzionetara ibilzen eztirenak.

2. Haurrak eta sehiak harat igortzen ezdituztenak, edo hek hara goaitetik gibelatzen dituztenak.

3. Igandeak eta Bestak atsegin hartzen eta deboxean daramatzitenak.

4. Premiarik gabe, edo premia dutenean ere Elizako aitzindarien baimendurik edo permisio-nerik gabe lanean haritzen direnak edo bertze norbait lanean hari arazten dutenak.

PRATIKAK

1. Ahalik maizena Igandetan eta Bestetan ibil gaitezin gure herriko Meza Nausira pregarioetara, eta Bezperetara.

2. Bat bedera hari bedi zenbait liburu debozionezkoren irakurtzen, edo Katiximaren iraklasten bere hurrei eta sehiei, edo bere anaiei eta arrebei edo aizpei.

3. Ez ibil ostatuetara Igandetan eta Bestetan.

ISTORIOAK

Judu bat nola izatu zen harrikatua zeren Larunbat batez hari izan zen egur biltzen. Judu batzuen Istorioa, zeinek utzi baitzituzten bere buruak hiltzera Larunbata hautsi nahi gabez. Ikhus zazu zer den errana Eliza Ama Sainduaren lehenbiziko eta bi-garren manamenduen gainean.

ELIZAREN LEHENBIZIKO MANAMENDUAZ ETA BI-GARRENAZ

G: Zertara obligatzen gaitu Eliza Ama Sainduaren lehenbiziko manamenduak?

I: Obligatzen gaitu Meza Saindua osoa eta debotki entzutera Igandetan eta Bestetan.

G: Eliza Ama Sainduak zergatik nahi du Meza entzun dezagun Igandetan eta Bestetan?

I: Zeren hura baita giristinotasuneko akzionerik sainduena, eta Jainkoa gehienik ohoratzen duena.

G: Zein Meza behar da bereziki entzun?

I: Herriko Meza Nagusia egin ahal bezanbantean.

G: Zein dire hartako exenplua emaitera gehienik obligatuak?

I: Familietako buruzagiak, kargudunak, eta berze presuna publikoak.

G: Zertara obligatzen gaitu Elizaren bi-garren manamenduak?

I: Obligatzen gaitu manamenduzko Besten sailduki iragaitera eta pasatzera.

G: Nola iragan behar dire Bestak sailduki?

I: Egun hetan nekhazale lanik ezda egin behar, eta egun hek enplegatu edo iragan behar dire Jainkoaren zerbitzuan.

Ikhus zazu hirur-garren Leziona Jainkoaren hirur-garren manamenduaren gainean.

G: Zein dire Elizak begiratzen dituen Bestarik phuruenak?

I: Jesu-Kristoren Misterioen ohoratzeko ordenatuak direnak; hala dire Eguberri, Trufania, Bazko, Mendekotte,&.

G: Zergatik Elizak Besta atxikitzen ditu Jesu-Kristo gure Jaunaren misterioen egunak?

I: Hirur arrozoin prinzipal gatik. 1. Gu misterio hetaz orhoit araztea gatik.

2. Jaun hark guretzat egin dituen gauza handiez guk hari eskerrak eman detzogun gatik.

3. Misterio baxhotxak berekin dakharzken graziak guri bil araztea gatik.

G: Zein dire Eliza Ama Sainduak ordenatu dituen bertze Bestak?

I: Ama Birjina sainduarenak, eta bertze sainduenak.

G: Elizak zergatik Besta hek ordenatu ditu?

I: Hirur arrozoin prinzipal gatik. 1. Saindu hekin memoria edo orhoitzapena ohoratzea gatik.

2. Hekin berthuteak imitatzeko gutizia guri emaita gatik.

3. Hekin arartekotasunera guri laster eragitea gatik.

PRATIKAK

1. Artha handirekin eta ahalik maizena ibil gaitazin Herriko Meza Nausira, aste guziko gure obligazioneak han ikhasteko.

2. Ahalik deboziora gehienarekin ohora detzagun Jesu-Kristo gure Jaunaren Misterioak eta Birjina Sainduarenak, zeren hek baitire grazia handien ithurriak.

3. Ezta behar uste izan Sainduen Bestak direla atsegin hartzeko egun batzuek; bainan kontsideratu behar da, Elizak ezdituela Besta hek ordenatu gu hek bezala saindu izaitera lehiaraztea gatik baizen.

ISTORIOAK

Nolako deboziorarekin eta relisioarekin Juduek ohoratzen eta begiratzen zituzten bere Bestak, hala nola Bazko. *Ezch. 45. v.21. et seq.* Giristinoek ahalkatu behar lukete bere Besta egun sainduetan, konsideraturik Juduek zein artha handiarekin begiratzen zuten larunbata, artha haren exenplu bat hagitz partikularra ageriden bezala. *1. Machab. c. 2. v. 33 et seq.* Herriko Elizan guziek balsan egiten duten othoitz publikoak zein indar handia duen. *Math. 18. v. 20*

GORPHUTZ SAINDUAZ SAKRIFIZIO BEZALA, MEZAKO SAKRIFIZIOAZ

G: Jesu-Kristo gure Jauna ez othe da Gorphutz sainduaren Sakramenduan, gure arimen janhari izaiteko baizik?

I: Bai, han da oraino bere Aita Jainkoari sakrifizioetan ofritua izaiteko bitima bezala Aphezen ministerioaz.

G: Jesu-Kristo gure Jauna non ofritzen zaio horrela bere Aitari?

I: Gure Elizetako aldaren gainean Meza saindua erraitean.

G: Zer da Meza?

I: Meza da Jesu-Kristoren Gorphutzaren eta odolaren Sakrifizio odol ixuririk gabea, Aphezak Jainkoari ofritzen dioena ogiaren eta arnoaren idurien azpian.

G: Jesu-Kristo gure Jaunak zergatik ordenatu du Sakrifizio hori?

I: 1. Sakrifizio ageri den bat bere Elizan ezarzea gatik munduaren akhabanzaraino.

2. Berak gurutzearen ganean ofritu duen sakrifizioa gure artean kontinatzea gatik.

3. Sakrifizio huntaz guri aplikatzea gatik gurutzeko sakrifizioaren berthutea eta merezimendua.

G: Jesu-Kristo gure Jaunak gurutzearen ganean ofritu du Sakrifizio bat?

I: Bai, gurutzearen ganean hilzean bere Aita Jainkoari ofritu zaio guretzat.

G: Zer egiten du Meza sainduan?

I: Han kontinuatzen du ofrenda hura bera eta sakrifizio hura bera.

G: Beraz Mezako sakrifizioa gurutzeko sakrifizio bera da?

I: Bai, bitima bera denaz geroz Jainkoari guretzat ofritzen zaioena hala gurutzearen ganean nola aldare ganean, eta ezdenaz geroz diferentziarik haren ofritzeko maneran baizik.

G: Zer da diferentzia hura?

I: Jesu-Kristo gurutzearen ganean bera ofritu zaio Jainkoari odol ixuriarekin, eta Mezan bera ofritzen zaio Jainkoari odol ixuririk gabe Aphezen ministerioaz.

GAUZA BERAREN SEGIDA MEZA SAINDUAREN UNGI ENTZUTEKO MANERAZ

G: Meza saindua nola entzun behar da?

I: Modestia eta debozione handirekin.

G: Zer huts hartan egiten da maizenik?

I: 1. Lehena da Meza enzutean solasen egoitea. 2. Errespetu gutirekin han egoitea. 3. Atentionerik gabe egoitea.

G: Zer egin behar da Mezako Sakrifizioa ofritzen denean.

I: Segitu behar dire Elizaren intenzioak, zeinak sakrifizio hura sofritzen baitu, eta zeinentzat Jesu-Kristo bera ofritzen baitzaio Trinitate sainduari.

G: Zein dire intenzioak?

I: Badire laur prinzipalak. 1. Da Jainkoari bihurzea eta errendatzea hari zor zaioen adorazio eta ohore guzien gainekoa. 2. Da haren koleraren phazegatzea, eta gure bekhatuen barkhamenduaren ardiestea. 3. Da behar ditugun graziak Jainkoari galdegitea. 4. Da Jaun hark

egin darozkigun grazia guzietz hari eskerrak emaita.

G: Ze egin daiteke oraino Meza enzutean?

I: Orhoit gaitezke eta gogoan ungi erabil Jesu-Kristoren pasionea eta heriotzea, Jaun hura kontsideratuz Kalbarioaren gainean baliz bezala, eta bihotza samurtzen zaikularik Jaun hark gure amoreak gatik zer pairatu izan duen orrhoitzeaz.

G: Nori ofritzen zaio Mezako Sakrifizioa?

I: Jainkoari berari xoilki.

G: Ez othe zaiote ofritzen Birjina sainduari eta bertze sainduei?

I: Ez, bainan han egiten da orhoitzapen bat sainduetz, Jainkoari eskerrak emaiteko hei egin diozkaten grazietz, eta hekin arartekotasuna gure othoitzei juntatzeko.

G: Norentzat ofri daiteke Sakrifizio saindu hura?

I: Mundu huntan bizi diren giristinoen santifikazionearentzat, eta Purgatorioan direnen lagunzeko eta solegizeko.

PRATIKAK

1. Meza enzutean egon gaitezin gurutzeko sakrifizioan bagine bezala, eta junta gakizkoten Birjina sainduak Kalbarioaren gainean zituen dispoziōne sainduei.

2. Meza akhabatu den ondoan zenbait momentuz egon gaitezin belhaurinko, Jainkoari eskerrak emaitako, eta gogo on bat har dezagun Jainkoa egun hartan ungi zerbitzatzeko.

3. Estatutan jar gaitezin han komuniatzen ezdugunean, gogoz bederen eta borondatez komuniatzeko.

4. Ezgaitezin arrankura Meza luze dela, eta are gutiago ibil gaitezin Meza laburren bilha, oroitzen garelarik Jesu-Kristo gure Jaunak ezduela luzegi kausitu Gurutzearen gainean guretzat pairatzen egotu den denbora.

ISTORIOAK

Mezako Sakrifizioaren figurak, Bazkoko bildotsa. *Exod. c. 12.* Melchisedech-en Sakrifizioa. *Gen. cap. 14. v. 18.* Isaak bere Aitaz sakrifikatua. *cap. 22.* Sakrifizioa Malachias Profetak aitzinetik deklaratu. *Malach. c. 1. v. 11.* Jesu-Kristo hekin

lekhuan jarzen da Sakrifizio zaharren plazan, zeinak baitziren haren Sakrifizioaren figurak. *Hebr. c. 10.v. 1. et seq.* Jesu-Kristok erreberitzen du gurutzeko Sakrifizioa. *Luc. 22. v. 19. EWp. I Cor. c. II, v. 25 et seq.*

VII.— KAPITULUA

Nola behar diren iragan Igandea eta besta egunak

Egun ona deritzon liburu xahar batetik hartua da kapitulu hau guzia. Liburu hori frantses erdaratik eskuararat itzuli zuen Haranburu aphezak, mila zortzi ehun eta hogoi eta bederatzian (1829), Hazparnen misionest zelarik.

Jaunak ematen daukitzue astean sei egun laneko; ez du beretzat erresalbatu baizen zazpi-garrena eta urthean zenbeit besta egun. Hek manera berezi batean, behar ditzuzue baitezpada Jainkoaren zerbitzuan iragan, Jaunaren eguna heien santifikatzea datza, 1. lanean batere ez haritzean; 2. erlisione-zko obren egitean. Egun hek izan behar dire bertzeak baino sailduago. Hartarakotz, hemen eman nahi dautzuet errege-la berezi bat heien santifikatzeko.

Beraz, 1. ez diozozuela zuen burueri permeti ez lanik, ez libertezionerik, ez deboxkeriarik, egun hek profana detzakenik.

2. Zure ardurako lanek uzten dauzueten errepausuz balia zaitezte, zuen arimez osoki artha izateko; deskantsa zaitezte Jaunaren baithan, segituz orai erratera nohazkitzuen erlisione-zko eta karitatezko pratika sailduak.

Bezperatik, ezkilek abisatzen zaituztenean biharamuneko besta buruaz alegera zaitezte aitzinetik; errazue bozkario gozo batekin: «*Alegeratu naiz, erran izatu zaitanean: bihar goanen gare Jaunaren etxerat*». Bihar igandea da. Besta buru handi bat da. Izanen dut Jainko maitearen aitzinean agertzeko zoriona, fidelen bilkhuian. Zorionezko eguna! zilhegi izanen zait beraz nik nahi bezala eta osoki ene kretzailearen zerbitzuaz okupatzea. Lokhartuko zaitezte esperantzaz maitagarri hortan. Atzartzean, gogoeta bera ethorriko zaitzue izpiriturat: Jaikiko zarete alegrentziarekin, elizarat goateko: han Jainkoari ofreituko diozkatzue hasten duzuen egun sailduaren lehenbiziko galdeak eta botuak.

Goizetik beraz, goanen zarete erregeen erregearen oinhetan ahuspez jartzerat, eta hark ematen dautzuen errepausuaren lehenbiziko mementak harekin iragaterat. Egitzue han zuen

goizeko othoitzak; errazue Birjina sainduaren ofizioa, edo bertze zenbeit othoitz, zuen debozio-nearen arabera. Egizue irakhurtze saindu bat, meditatuz, erreflekzioneak eginez, eta irakhurtzen duzuenaren gainean deliberazione onak hartuz. Hori izanen da meditazione bat guziz ona.

Irakhurtzen ez dakiten presunek berek, iragan detzakete mement baliosak sakramendu sainduaren aitzinean, eta mintza daitezke bere nautsi onarekin: harentzat atsegin bat da heien bere oinhetan ikhustea.

Holatan, arima Jainkotiarrek, errotzue zuen guziz maiteari bihotzerat eta ezpainetarat ethorriko zaizkitzuen guziak. Ez da behar ez jakitate-rik ez izpiriturik Jainkoari mintzatzeko. Mintza zakizkote sinpleki zueri tokatzen zaizkitzuen gauza guziez, adixkiderik hoberenari eta aitarik samurrenari bezala: ezen bat eta bertzea da zuentzat. Mintza zakizkote zuen beharrez, fidantzia ezti batekin; ager diozkotzue zuen flakeziak, erromestasonak, zuen bekhatuak, zuen atseka-beak, zuen enbrazuak, zuen xedeak, zuen egitekoak; mintza zakizkote zuen familiaz, zuen hau-

rrez, zuen esposez, zuen emazteaz, zuen etsaiez, zuen pertsekutatzailliez, etc. Egiotzue zuen pleintak, ixur ezazue zuen arima haren aitzinean ura bezala, deskarga zazue zuen biho-tza adixkide maite horren galtzarrerat.

Ez banizute deusik erranen ere, ager zaitezte haren aitzinean humiltassun handirekin, eta urren ezeztaturik: zaudezte haren oinhetan, eskearen galdez dagoken erromes mutu batzuek bezala. Ah! zer ez dio erranen haren bihotzari zuen ixilik egote horrek! Balioko du horrek othoitz eder batek bezenbat: bai, hobekiago mintzatuko zakizkote ezen ez zuek jelosten dituzuen gizon jakintsun hek.

Entzun ezatzue zuen arimen espos samur horren errepustak; ezen bere aldian mintzatuko zaitzue. Zuek zarete ebanjelioan aipatuak diren haur xume hek; harentzat atsegin bat, da zueri agertzea munduko handieri eta zuhur urguillutsueri gordeak dauzkan gauzak. Mement dohatsu horietan Jainko on horrek ixuriko ditu zuen gainerat bere benedizioneak, eta jasta araziko daukitzue bere presentzian kontsolamendurik gozoenak: hauk errefusatzen ditu plazerez pla-

zer dabilzaneri, zeren hauk bere atseginak bilhatzen baitituzte munduko besta profano eta krimineletan.

Huna bizkitartean dei batzuek Jesusi egin diotzatzuekenak, bara zaitezte bakotxean, goardia gehiagorekin egitea gatik: pausa ezatzue zuen begiak zuen guziz maiteak bere egoitza egiten duen tabernaklearen gainean.

Huna non naizen, zure aitzinean, ene Jauna: ez dakit zuri zer erran, ene Jainkoa; bainan irak-hats diezadazu othoitz egiten eta zuri mintzatzzen... Ah! *Jauna, zein gozo den hemen egotea!* Zer zorion, eta zer sosegu zure etxean!... «*Ala dohatsuak baitire egoitza xoragarri huntan daudezenak!... Hemen iragaten den egun bakhar bat baliosoago da, munduko plazer kriminelen egoitzan, eta bekhatorosen konpainian iragaten diren milla egun baino!...*». Barkha dietzadatzu, ene Jainkoa, lekhu zeruen pareko hautan izan ditudan desgustuak, eta hain bertze errespetu eskas, zeinetan, ene arima errendatu baitut hainitzetan faltadun... Hemen da zeruaren iduria eta hango athea... Jerusalem zerukoa, noiz eginen dut ene egoitza zure galtzar sakratuan!

Hemen naiz ene Jainkoarekin, parabisuan izanen naizen bezala... Harat goateko nahia aitzinetik sentitzen dut... Ene Jainkoa, zure ganat nazazu, eta egidazu grazia egun batez zeruan sartzeko, eta han zure presentziaz goatzeko eliza huntan goatzen naizen bezala.

Lehenbiziko bisita horren ondoan, bihur zaitzte zuen etxetarat, Jainkoaz betherik, zuen etxeko lanez artha izaterat, zeinak baitire egun guzietakoak eta baitezpadakoak.

Mezako ezkillak jotzen duenean, zohazte berriz berehala elizarat, meza sailduaren entzuterat, sakrifizio sailduak galdetzen duen debozione eta erlisione-zko sentimendu guziekin. Meza huts egitea, entzuten ahal delarik, edo haren gaizki entzutea, manatua den egunetan, hori da bekhatu mortal bat, zeren hori baita manamendu handi baten haustea. Mezaren ungi entzutekotzat, segi ezatzue astelegunetako eman dauzkitzuegun praktikak; heieri junta diozue khar eta atentziona handiagoko bat, bestaren handitasuna eta egunaren obligaziona dela kausa.

Ahal bezenbatean, zuen herriko meza entzun behar duzue. Hori da elizaren xedea; hura da egiazki zuen meza; zuentzat erraten da: bereziki herriko jendeentzat egiten dire han othoitzak eta instrukzioak. Baldin zuen artzainari obeditzen badiozue, zuentzat destinatua den tenpluan aurkhituz, orduan familia maite batetako haurrak zarete: zuen guzien aitarentzat plazer bat da zuen gainerat benedizioneen ixurtzea. Ez beraz utz zuen herriak, harat hunat alferretan ibiltzea gatik; gaizki beiratuak dire, besta igandetan bethi herriz kanpoan dabilzanak.

Baldin ez badezakezueke nihola ere meza entzun, eri zaretelakotz, edo haurren edo arthaldearen goardatzen egon behar zaretelakotz, zuen xedeaz bat egin zaitezte, elizan bildua den populu fidelarekin;; itzul ezatzue zuen begiak eta zuen gogoak lekhu sainduko alderat: egitzue mezako othoitzak, elizan bazinete bezala; desira ezazue meza sainduaren entzuten hari direnen zoriona, eta izan bedi zuentzat pena handi bat abantail hartaz gabetuak izatea.

Aditzen duzuenean mezaren hastean jotzen den ezkillan, errazue errege profetarekin: «A/a

ene bihotzak maite baititu zure tabernakleak, o berthuteen Jainkoa! Ene arima hasgorapenez dago egoitza maite horietarat, eta flakatzerat doha bere nahia konplitu beharrez...». Ala dolu baitut ezin aurkhitzeaz egun fidelen bilkuian... Bainen han naiz xedez eta desiraz: juntatzen ditut ene othoitzak han aurkhitzeko zoriona dutenekin. O ene Jainkoa, phartialier egin nazazu ene anaia zure etxean bilduak direnen gainerat ixurtzerat zohazen benedizionetan.

Izpirituz eta gogoz segi ezatzue mezako phontu diferenteak, eta bereziki ezkillak adiarazten dituenen orduko mementik baliosenak, hala nola baitire elebazionea edo sagara eta komunionea. Orduan, phitz bedi zuen baithan khar handiagoko bat, eta gauza miragarri heien lekuko izateko nahia; jar zaitezte ahuspez egiazki, edo bederen bihotzez, adoratzekotzat zuen nausi dibinoa, zeina gure aldareen gainean agertzen baita. Hitz batez, entzun ezazue meza izpirituz eta bihotzez, eta bilduko ditutzue hango fruituak, han aurkhitzeko ahalaz kanpoan bazinete ere.

Igandea guzi guzia Jaunaren eguna da; behar da beraz arratsaldea santifikatu, goiza bezein ungi. Aurkhi zaitezte bezperetan, zeinak baitire arratseko ofizioa. Erdizkara baizen ez duzue egun hura santifikatzen, bezperak zuen faltaz huts egiten ditutzuenean, eta igandetako arratsalde guzia iragaten duzuenean barraiamenduan eta dosteta banoetan. Baldin ez bazaitez-kete bezperetan aurkhi, erratzue zuen bakhartasunean; edo ez balin badakizue irakhurtzen, errazue, heien orde, arrosarioa edo bertze zenbeit othoitz.

Bezperetan aurkhitzen zaretenean, egizue gure erlisione sailduko akzione handi hori, merezi dituen goardia eta debozionearekin. Kantatzue elizarekin haren ofizioetan diren psalmoak eta himnoak, edo bertzenaz, erratzue aphalki othoitz berak, edo bertze zenbeit gisa bereko.

Baldin ematen bada sakramendu sailduaren benediziona, errezibizazue, emaitza handi horrek merezi duen ezagutzarekin; adora eta lauda zazue gure artean egon nahi izan den Berbo eternala; errekeri ezazue ixur detzan bere

graziak zuen eta zuen famillien gainerat, diozue-
larik: Ene Jainkoa, benedikak zazu ene gorphutza,
ene arima, ene haurrak, ene famillia guzia, ene
ontasunak, ene lana eta niri tokatzen zaizkidan
guziak. Egidazu grazia ezarria izateko zure
eskuinean jujamenduko egun handian, adi zai-
tzadan niri ematen benedizione kontsolagarri
hau: «*Zatozte ene aitaren benedikatuak goza-
tzerat munduaren hastapenetik aldaratua izan
zaitzuen erresumaz*».

Igandearen ungi santifikatzeko egin behar
gauza bat, da aurkitzea instrukzionetan eta
bereziki katiximan. Asko presunentzat eginbide
hori hain hertsia da, nola mezaren entzutea. Bal-
din ez badakizue zuen erlisionea, baldin ahantzi
baduzue zuen katixima, ez zarete ahalke izan
behar fedearen umiekin nahasteaz zuen buruak,
heiekin instruituak izateko; hortarat obligatuak
zarete, bekhatuaren penaren azpian, zeren
guziek behar baitituzte jakin erlisioneko misterio
printzipalak. Zatozte beraz katiximarat, eta
entzun ezazue atenzionekin zer erraten den, eta
ikhas ezazue ez dakizuen.

Arrosarioa, zeina erraten baita asko elizetan, othoitz bat da guziz errespetagarria, elizaz autorisatua eta gomendatua, Birjina sainduaren ohoartzeko. O zuek, Jainkoaren ama sainduaren alderat debot zaretenak, zatozte harentzat duzuen amodioaren eta errespetuaren agerian ezartzerat hura salutatzuz aingeruarekin eta elizarekin.

Arrosarioa erraten duzuenean, zuen fedearen aithorra, Jaunaren othoitz, aingeruaren agurra, guziz Jainkozko othoitz batzuek erraten dituzte hanitz aldiz, hobekiago zuen sentimenduen seinalatzea gatik. Errazue beraz arrosarioa goardia eman ez eta debotki: egituzte erreflekzioak hamarreko baxhotxean irakhurtzen zaizkitzuen misterioen gainean: ez dezazuela egin othoitz hori nola nahi, kostumaz, goardiarik gabe, erdilo, askori gerthatzen zaioten bezala.

Bihur zaitezte oraino arrats aphalean, Sakramendu Sainduari bisita baten egiterat, eta huna exerzizio bat, orduan pratikatzea konseillatzen dautzuedana.

Examina zazue Jainkoaren aitzinean nola iragan duzuen azken astea; kontu errenda diozo-

zue zuen burueri orduan egin ditutzuen hutsez, eta hetaz humilki Jainkoari berkhamendu eska diozozue. Har ezazue borondate fermu bat heieri ihes egiteko ondoko astean. Ikhus ezazue zein diren zuentzat, iragan egunetan, kaltekor izan diren paradak edo okasioneak; hetarik urruntzeko xede zina har ezazue, bai eta ere bizitzearen ganbiatzeko; eta grazia hori Jainkoari galde diozozue othoitz khartsu batez. Hortarakotz, balia zaitezte goizeko eta arratseko etsaminaz. Egizue aste guziez egun bakhotxean egiten duzuen; hori izanen da moian bat guziz ona ungian irauteko, edo hartarat bihurtzeko.

«*Egiazko erlisionea, dio Jondoni Jakube apostoluak; erlisione garbia, saindua, eta tatxagabea, da pobreen, alargunen eta xurtxen bisitaztea*». Zuentzat erlisioneazko akta eder bat eta besta igandeen ungi santifikatzea izanen da beraz, baldin karitatezko obretan iragaten badi-tutzue Jainkoaren ohoreari konsekratuak diren egun hek; ezen Jainkoa alargunen laguntzaillea eta ume xurtxen aita da.

Zoazte beraz pobreen, aflijituen erien bisitazterat; lagun ezatzue erromesak, zuen ahalen

arabera. Baldin ez bazarete eztatutan heieri amoinaren egiteko, lagun ezatzue zuen eskuez, egitzue heien lanak. Egizue eri horren ohea; emotzue behar dituen laguntzak, janhariak, erre-medioak: kontsola zazue halako presuna aflijitu hura, bakhezko eta eztimasunezko hitzak erranez. Ez duzue behinere hain bertze gozo izanen munduko atseginetan, nola karitate giristinozkoaren obra xarmagarrietan.

Azkenean, arratsean, famillia guzia bildu ondoan, bereziki su basterrean iragaten dituzuen neguko arrats luze hetan, orhoit zaitetze zer errana izan zaitzuen instruzionetan, eta hartaz izan beitez zuen solhasak. Aita, amak, erran araz diozozute zuen haurreri eta sehieri aditu dutena; egizue baltsan zenbeit lektura on, eta hain egun eder hori akhaba ezazue, elkharrekin eginez arratseko othoitza; ez da behinere egin gabe utzi behar famillia on guzietan.

Ala gozoa izanen baita zuen loa, obra onez gisa hortan bethea izan den egun baten ondoan! orduan, batere kontzientziako zimikhorik, batere, igande deboxkerian eta atsegin krimineletan iragan den baten ondoriak diren erregreta hira-

garri hetarik. Ala zuen kontzientziaren etsamina errea eta laburra izanen baita! zer bake! zer kontsolamendu! oi egunaren ederra! bai, hori da «*Jaunaren eguna, Jaunak egin duen eguna*».

Bizkitartean, iduritzen zait aditzen zaituztedala plenitzen eta niri galdetzen: zer! ez dugu bada behinere izanen phausurik, ez dostetarik... Bazterrelxar nekhazale maiteak, urrun da nahi baitzatuztegu gabetu dozteta suerte guziez, badakigu hatsa hartu behar duzuela, aste guzian lanaren azpian lehertuak izan zareten ondoan. Gure erlisione saindua ezta da urrikalmendutsua da: ez dauzkigu debekatzen deboxkeriak, desordenak, plazer lanjerosak eta hobendunak baizen.

Har ezatzue beraz zilhegi eta honestak diren atseginak. Bozkaria zaitzte Jaunaren baithan, apostoluak dioen bezala, benedika ezazue Jainkoa zuen famillietan, patriarkek bezala. Ofiziotarik lekhora, abusa zaitzte konpainia giristino eta hautatu batekin; hori ez zaitzue debekatua. Baina ihes egin behar diozute joko itsusi, joko arrabots handitako, joko disputaz eta mokokaz betherikako guziori: ihes egiozute ostatueri zei-

nak baitire zuen arimen, gorphutzen, ontasunen eta bakhearen etsaik handienak; zaudezte urrun bi sentsutako presunen dantza eta bilkuia bihotz phozoatzaille hetarik: horiek dire horiek erlisio-neak, erregeek, arrazoinak eta modestiak debekatzen daukitzuen atsegin kaltekorrak.

Populu nekhazalea, inozentzian iragaten ditutzu laneko egunak; zer nahasmenduen ariaz Jaunaren eguna izanen da bada zuretzat debrua-ren eguna, krimaren eguna, egun galdua, egun profanatua, menturaz, zure errefrogamenduaren eguna, izan behar bidean zuretzat merezimen-duzko eta santifizioezko egun bat.

VIII.— MEZA SAINDUKO OTHOITZAK

Meza behar bezala entzuteko Preparazionea

Zure aldare sainduaren oinetan ahuspez emanik, adoratzen zaitut, Jainko bothere guziak ditzuna, fermuki sinhesten dut entzuterat nohan Meza dela Jesu-Kristo zure Seme-Jainkoaren Gorphutz eta Odolaren sakrifizioa; Kalbario-ko mendian gizon guzientzat eskeindu zuen sakrifizio hura bera. Eskeintzen derautzut, bat egiten naizelarik Jesu-Kristoren eta haren Elizaren xedeekin. 1. Zure Maiestate dibinoari zor zaioen ohore soberenoa emaiteko; 2. Egin derauzkigutzun ongi guziez eskerrak bihurtzeko; 3. Munduko bekhatu guzientzat eta bereziki nereentzat zuri satisfakzione egiteko; finean arimako salbamenduarentzat eta gorphutzeko biziarentzat behar ditudan laguntzak zure ganik ardiesteko. Zure ganik grazia hauk guziak igurikitzen ditut, Jesu-Kristo zure Semearen merezi-

menduen bidez, nahi baitu berak izan Sakrifizio adoragarrai hunen Apheza eta biktima.

Mezaren hastean eta *Confiteor* erraiten

Nere bekhatuen jakiteko eta ezagutzeko, o nere Jainkoa! behar ez duzun arren nere aithorrik eta kofesiorik, eta nere gaixtakeria guziak nere bihotzean irakurtzen dituzun arren, kofesatzen derauzkitzut halere zeruaren eta lurraren aitzinean: aithortzen dut ofentsatu zaitudala gogoz, hitzez eta obraz. Nere bekhatuak handiak dire, bainan zure miseriak neurririk ez dute. Urrikal nakizu, o nere Jainkoa! Orhoit zaite zure haurra, zure eskuko obra, zure odolaren prezioa naizela.

Birjina saindua, Zeruko Aingeruak Parabizuko Saindu eta Saindak, guretzat othoitz egizue, eta nigarrezko eta miseriak neurririk ez dute. Urrikal nakizu, o nere Jainkoa! Orhoit zaite zure haurra, zure eskuko obra, zure odolaren prezioa naizela.

Introitean

Jauna! zuk Patriarkeri eta Profeteri eman zinerauen, zure Seme baxhotxa lurrerat jausten ikhusteko, hain gutizia khartsua; indazu heien khar saindutik pharte bat; eta egizu, bizitze hilkor hunen goitibeheitien erdian, nere baitan senti dezadan zurekin bat izaiteko lehia saindua.

Kyrie eleisonetan

Dolhamen eta hatsbeherapenekin, o nere Jainkoa, errekeritzen zaitut, egidazu miserikordia. Memento guziez, bizi naizeno, erran baniezazu Jauna! nauzun urrikari; ez lizateke oraino aski nere bekhatuen nonbrearentzat eta handitasunaentzat.

Oremusetan edo Orazioneetan

Agrada bekizkitzu, Jauna, guretzat egiten zaizkitzun othoitzak; igutzu, Eliza zure esposak, Aphezaren ahoz, gure fagoretan galdegiten derauzkitzun graziak eta berthuteak. Ez dugu merezi (hala da) entzunak izaitea; bainan kontsidera ezazu grazia hoik eskatzen derauzkitzugu-la, Jesu-Kristo, zure Semearen bidez, zurekin bizi

baita, erreginatzen baitumendeen mende guzietan. Halabiz.

Epistolan

Epistola huni begiratzen deraukot o nere Jainkoa! zure nahien erakhasteko egortzen derautazun guthun bati bezala. Othoi, indazu manatzen derautazunaren konplizeko indarra. Zuk zuhauerek, Jauna, profeteri eta apostolueri erakatsi derauztetzu ezkiribuz utzi derauzkiguten egiak: heien argietarik pharte indazu, eta pitz ezazu nere bihotzean, hek erretzen zituen su sakratu hura, maita zaitzadan eta zerbitza, heiek bezala, nere bizi guzian.

Ebanjelioan xutiturik

Xutitzen naiz, o Legegile soberanoa, zuri erakusteko Ebanjelio sailduan diren egia handiak, nere odolaz zigilatzerat ekharria naizela. Egia hoik nere bihotzean zuhaurek, othoi, Jauna, barneraino landa itzazu. Horiek bitzate molda nere gogoetak, nere hitzak eta nere obrak. Ez dut gehiago atxiki nahi zure legeaz bertzerik; mintza zaitezi Jauna; huna non aditzen zaitudan, sehi

baten jauspen osoarekin. Indazu zure erranen bethetzeko hanbat indar nola baitut fermutasun heien sinhesteko.

Ofertorioan

Kreatura hilkor, eta bekhatuz kargatu bat bai-zen ez naizen arren; eskeintzen derauzkitzut Apezaren eskuz, o egiazko Jainko bizi eta eter-nala, ogi eta arno hori, izan behar baitute gan-biatuak zure Seme Jesu-Kristoren Gorphutzerat eta Odolerat. Onets ezazu, Jauna, ezin erranezko Sakrifizio hau, amulsuki eta gozoki. Ofrenda saindu horrekin juntatzen dut, nere gorphutzaz, arimaz, ontasunez, bizi az eta ditudan guziez egi-ten derautzudan sakrifizioa. Egizu nitaz, o nere Jainkoa kreatura berri bat; ogi hori eta arno hori zure bothereaz ganbiatzerat zohazin bezala.

Apezak bere erhiak garbitzean

Garbi nazazu, Jauna, sakrifikatua izaterat doatzun Bildotsaren odolean; notha guzietarik xahutua, eta zure graziaren espos-arropaz beztitua, zure ganat esku xuri eta bekhatugabeak altxaditzadan; esparantzarekin egun batez erre-

zebitua izaiteko, zure hautatuerei Zeruan pharatu derauezun aphairu sakratuan.

Ixildurik Aphezak erraiten dituen Othoitzetan

Agrada bekizu, o nere Jainkoa, zure izen sainduaren ohoretan eta loriarentzat, gure probetxutan, eta zure Eliza sainduarenetan, eskeintzen zaitzun Sakrifizioa: haren xede beretan sarthurik, huna non galdatzen derauzkitzudan, Elizak orai, aphezaren bidez, eskatzen derauzkitzun grazia guziak. Eman dietzagutzu Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez eta izenetan.

Prefazioan

Ordu da, o nere arima, igan gaitezin behere huntako gauza guziez gorago. Altxa itzatzu, Jauna, altxa itzazu gure bihotzak zure ganat: zor zaizkitzun goresteak eta eskerrak zuri emaiteko juntatzen ditugu gure boz flakoak, Izpiritu dohatsuaren alegantziatzako sentimenduekin; eta desterruko lekhu huntan erraiten derautzugu, hek loriaren egoitzan kantatzen derautzutena: *Sain-*

dua, Saindua, Saindua, da armadetako Jainko Jauna, izan bedi lorifikatua zeruetako gorenean.

Sanctus erran-ondoan

Aita bethierekoa, arzainetako arzain soberanoa! zure Eliza zain eta ebilka ezazu, finka ezazu eta heda lurraren bazter guzietarat. Izpiritu bat eta bihotz bat eman ietzetzu Kristau guzieri. Benedika itzatzu gure Aita saindua, gure aphez-pikua, gure aintzindariak, gure erretora, eta zure Elizaren sinhestean bizi diren guziak.

Lehenbiziko Mementoan

Jauna, orai zure erresuman zarena, orhoit zaitezi nitaz zure miserikordian, eta sakrifizio saindu hunen merezimenduz indatzu eskas ditudan berthute guziak. Eta batak bertzearentzat othoitz egitea manatu deraukuzunaz geroz; Jauna, othoi adi itzatzu eta entzun, humilki eta konfidentziarekin egiten derauzkitzudan othoitzak nere ahaideentzat, adiskideentzat, arimako eta gorphutzeko ongiegileentzat. Nere bihotz guziaz halaber gomendatzen derauzkitzut nere etsaiak eta gaizki zonbait egin ahal derautaten

guziak; ahantz bekizkitzu heien bekhatuak eta nereak, nere bihotzetik khen itzatzu khiratstasun eta gaitzirizko guziak. Mundu guziak senti beza sakrifizio hunen ona. O nere Jainkoa, iguzu guzieri bake egiazko bat, elkharrekin batasunean atxekiren gaituena, bethikotz bakean izaiteko Birjina-Amarekin, zure apostoluekin, martirekin, Saindu eta Sainda guziekin, eta finean eternitate guzian zurekin.

Oztia saindua altxatzean

O Jesus, nere Salbatzailea, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona, sinhesten dut zinez eta fermuki Ostia Sainduan errealki zarela, adoratzen zaitut hor, nere Jauna ete nere Jainkoa zarena. Iguzu, niri eta hemen garen guziera, Misterio adoragarri huntan zor derautzugun deboziona, amodioa eta ezagutza.

Khalitza altxatzean

Adoratzen dut khalitz hortan, o nere Jesus dibinoa, nere erospenaren prezioa, eta gizon guziena. Odol adoragarri hortarik xorta bat jausterat utzazu nere arimaren gainerat, izan dadin-

tzat garbitua bekhatu guzietarik, eta sustatua zure amodioaren khar sakratuaz.

Jainkoa altxatu ondoan

Ez derautzugu gehiago ogia eta arnoa eskeintzen, bainan bai Jesu-Kristo zure semearen gorphutz adoragarria, o nere Jainkoa, haren pasionearen, pitztearen, zerurat igaitearen orhoitzapenetan: gure eskutik, Jauna, har ezazu, eta bethe gaitzatu zure graziez.

Bigarren *Mementoan*

Orhoit zaitezi halaber, Jauna, Purgatorioan diren arima gaixoez, zureak dire, bai eta zure esposak. Bereziki gomendatzen derauzkitzut nere ahaideenak, adiskideenak, arimako eta gorphutzeko ongi egileenak, eta gure othoitzen behar gehiena dutenak.

Nobis quoque peccatoribus erraitean

Guzia bekhatorea naizelarik, ausartatzen naiz galdazerat grazia bera neretzat, erran nahi da, o nere Salbatzailea, zure lorian pharte ttipi bat. Mila bekhatus hango zuzena galdu dudala

ikhusten dut eta aithortzen zure aitzinean, o nere Jainkoa! Nere merezietueri begiratzen baderauezu ez duket esparantzarik izaiteko erresuma hartan. Apostoluek, martirek, eta Birjina sailduiek ezin ardietsi dute, sofrituz eta berthute guziei baizen jarraikiz. Nola beraz ausarta-ere othe naiteke, Jauna, esparantza izaiterat? zure odolak egiten du nere fidantzia guzia. Barkha lie-tzadatu nere hutsak penitentzia egiazko batez zerurat helnadin.

Pater erraitan

Kreatura ez deus eta dohakabe bat baizen ez naizen arren; halere, Jainko handia, ausartatzen naiz zu nere aita deitzerat, zeren hola nahi duzun; egidazu grazia, o nere Jainkoa, bethi zure egiazko haur egoiteko. Gure Aita, Zeruetan zarena, erabil bedi sailduki zure Izena; ethor bedi zure erresuma; egin bedi zure borondatea, Zeruan bezala lurrean ere; iguzu egun gure eguneko ogia; barkha ietzagutzu gure zorrak, guk gure-ganat zordun direnei barkhatzen derauztegun bezala; eta ez gaitzazula utz tentamendutan

erortzerat, bainan begira gaitzatzu gaitzetik.
Halabiz.

***Agnus Dei* erraitan**

Jainkoaren bildotsa, munduko bekhatuez kargatu nahi ukhan duzuna, garbi zaitzu ene bekhatu guziak zure odolean hain khario erosi duzun bake hura ukhan dezadan zurekin, nere lagunarekin eta nere buruarekin.

***Domine, non sum dignus* erraitan**

A Jauna! egia da ez dudala merezi zure errezebitzea ene bekhatuen gatik: guziez urriki dut zeren damustatu baitzaituzte, eta zure ganik urrundu binaute. Zure hitz bakhar batek senda dezake ene arima: ez nazazula abandona, o ene Jainkoa!

Aphezaren komunionean, nork berak komuniatzen ez duenean errealki

O nere Jesus maitagarria! egun zure haragi sainduaz hazia izaiteko zoriona ezbadut: onets ezazu, errezebi zaitzadan bederen izpirituz eta bihotzez, eta zurekin bat egin nadin fedeaz,

esparantzaz eta karitateaz. Sinhesten dut zure baitan; zure baitan dut nere esparantza; eta maite zaitut ene bihotz guziaz.

Ala dohatsu bainintzateke, ene Salbatzaile maitea, zure ganat hurbiltzeko, zure mahain sainduan jartzeko, zure gorphutz sakratua jateko, eta zure odola edateko heinean banintz. Ah! zer indar, zer gozo eta grazia ez diozute hazten ditutzuneri!

Nork berak komuniatzen duenean, harren orde egin behar dire kommuniatzeko Aktak.

Ostia pixkak aphezak biltzean

Jauna, ja erran dut: ez dut merezi zure mahainean zure haurren herrunkan jartzea; bainan onets iezadazu bil detzadan bederen erortzen diren papurrak, Kananearrak galdetzen zuen bezala. Egizu ezdezadan zure emaitzetarik deus ere gal.

Azkeneko orazioneetan

Nahi duzu, Jauna, arterik utzi gabe, gure othoitzak erantzun dietzatzugun: zeren dugun

bethi zure grazien beharra: Ixur ezazu gure gainerat eta iguzu othoitzaren izpiritua, zeina baita humiltasunezko, konfidentziazko eta amudiozko izpiritu bat: hortaz errekeritzen zaitugu zure Jesu-Kristo Semeaz, zurekin erreginatzen baitu lorian.

Benedikzionearen aitzinean

Trinitate guziz saildu eta adoragarria, Aita Semea eta Izpiritu Saindua, Jainko, xoil eta bakhar bat zarena; zutaz sakrifizio hau hasi dugu, zutaz finitzen dugu, eta ez gaitzatzula egor zure benedikzioa gabe.

Azkeneko Ebanjelioa erraitean

Berbo eternala, gauza guzien egilea, denborak bethe zirenean gure gatik gizon eginik, sakrifizio miragarri hau establitu duzuna; eskerrak humilki darozkitzugu zeren egin deraukuzun grazia, meza saildu hunen entzuteko. Barkha ieza datzu, o ene Jainkoa, ene izpirituko barraimendua eta ene bihotzeko hotzetasuna; zu eta zure amodioa baizen ez nuelarik gogoan behar. Ahantz bekizkitzu, Jauna, ene bekhatuak, heien-

tzat Jesu-Kristo zure Semea, aldare hunen gainean imolatu baita eta ez dezazula permeti aski ondizkokoia izan nadin, zu hemendik harat ofentsatzeko. Halabiz.